

# Txingudi Ikastola



**1962/2012 Txingudi Ikastola**

# 50.

urteurrena



## **ARGITALPENA**

Txingudi ikastola

## **EGILEAK**

Elena Berazadi Larrea, Martín Izagirre Igiñiz

## **LANKIDEAK**

Markos Amundarain Arin, Maite Berazadi Larrea, Martxel Telletxea Irigoien

## **KOORDINATZAILEA**

Ana Erasun Ariztegi

## **ESKER ONA**

Enkarni Agirre, Josema Alberdi, Koldo Alberdi, Fernando Babaze, Mariani Estanga, Joxean Garaialde, Patxi Goñi, Fede Ortega, Mikel Ugalde, Marije Uranga, Xabier Zuazo, Ikastolaren 50. Urteurrenaren Batzorde Kideak.

## **DISEINUA**

Martín Izagirre Igiñiz

## **MAKETAZIOA eta INPRIMAKETA**

Antza Komunikazio Grafikoa

## **ALEAK**

2.000

## **LEGE GORDAILUA**


SS-1643-2013

2013ko abendua



# aurkibidea

<b>HITZAURREA</b>	6
<b>SARRERA</b>	7
<b>I. EGOERA LEGALA</b>	9
Alegalitateren urteak, 1962-1970	10
Legeztapenaren ondorengoak, 1972-...	13
<b>II. ANTOLAKETA</b>	15
Sorreratik publikatu zen arte, 1962-1994	16
- Organo nagusiak	18
- Idearioa eta Barne Araudia	20
- Antolaketa laborala	21
Euskal Eskola Publikoan integratu zenetik aurrera, 1994-...	22
- Organo nagusiak	22
- Antolakuntza Araudia	23
- Ikastolako Gurasoen Elkartea	23
<b>III. ESKOLA- ZERBITZUAK</b>	25
Idazkaritza eta administrazioa	26
Garraioa	27
Jangela	28
Eskolako materialaren biltegia	28
Instalazioen garbitasuna eta mantenua	29
<b>IV. FINANTZIAZIOA</b>	31
Autofinanziazioa	34
Instituzioen finanziazioa	36
<b>V. ERAIKINAK</b>	39
<b>VI. IKASTOLAREN DIMENTSIO SOZIALA</b>	45
Sorreren testuingura	46
Ikastolen mogimendua eta Hezkuntza Sistema	47
Txingudi Ikastolaren Proiektua gizarteratzea	48
<b>VII. HEZKUNTZA PROIEKTUA</b>	57
Sortze eta garatze urteak, 1962-1974	58
Osatzetako sendotze urteak, 1974-1994	62
Eskola Publiko bihurtzea, 1994-...	70
- Txingudi Bigarren Hezkuntzako Institutua (BHI)	70
- Irungo Txingudi Ikastola HLHI	72
<b>VIII. IKASTOLAKO LANGILEAK ETA IKASLEAK</b>	77
<b>IX. 50. URTEURRENAREN OSPAKIZUNAK</b>	113





SARRERA

## Hitzaurrea

*Oroitzapenak bizipen izan daitezen  
egin da lan hau, jakinda ez dagoela  
dena jasota... hurrengo urteurrene-  
koa osatuago izan dadila.*

*Gure esku dauden dokumentu ofi-  
zialetan eta Ikastolako artxibategian  
dauden dokumentuetan oinarrituta  
egin da izen abizenen idazkeraren  
trataera (euskaraz edo gaztelera).*

*Mende erdiko bidea hasi zutenen  
oroinmenez eta haien markatutako  
norabidea jarraituz, izan dezagun  
kemena Euskarak eta Euskal Hez-  
kuntzak betidanik, eta baita gaur  
egun ere, jasotzen dituzten erasoei  
aurre egiteko.*

## Sarrera

1962. urtean, Irungo guraso talde bat euskararen eta euskal kulturaren egoeraz kezkaturik, haien seme-alabak gure hizkuntzan eta kulturan eskolatzeko proiektua eraikitzen hasi zen.

Hamaika ikaslerekin eta Joxepi Etxeberria andereño zaldibiarrekin, Irungo Kale Nagusiko pisu batean, lehenengo ikasgela zabaldu zen Irunen. Irungo Atseginak erabilitako lokala zen, ez zen hura eskola emateko tokirik aproposena; baina, garbitu eta txukundu ondoren, lehenengo ikasle taldea sartu zen.

Ondorengo bi-hiru urteetan, Mª Jesús Lertxundi, Miren Urrutia, Asentxi Otxoteko... andereñoak lanera sartu ziren. Bost urteren buruan, 200 haur ari ziren Irungo Ikastolan ikasten 7 andereñorekin.

Gerora, ikasleriaren kopurua ikusgarri handitu zen, Irungo ikastetxe-rik handiena izatera iritsi arte.

Ekimen bera Gipuzkoako beste hainbat herrian hasi zen. Euskal Herrian zegoen hezkuntza sistema eraldatuko zuen ikasolen mugimendua abian jarri zen. Herritik sorturiko sare sozial sendo bat eraiki zen, hezkuntza sistema propioa eratzeko helburuarekin.

Francoren diktaduraren garaiko egoera sozialak, politikoak eta ekonomikoak euskal gizartean sortzen zuten errebindikazio giroak sustatu zuen euskal eskolaren sorrera. Baina, egitasmoa gauzatzea ez da ulertzen ahal familien, irakasleen eta herritarren euskal hizkuntza eta kultura aurrera ateratzeko borondate imoa kontuan hartu gabe.


1936ko gerra aurretik euskal eskolak eraikitzeko saiakerak egon ziren; baina, 1962an, guraso haien hutsetik hasi zirela esan daiteke; dena egiteko baitzegoen: tokiak aurkitu, ikasgelak atondu, beste familiak erakarri eta konbentzitu, konplizita-

teak landu, dirua lortu, prejuizioak baztertu, autoritateen jazarpenari aurre egin, klandestinitatea gainditu...


Gure gaurko begiekin, hastapen haietan egin zen lana harrigarria eta miresgarria da.

50 urte hauetan Txingudi Ikastolak egin duen ibilbidea jarraitzeko honako atalei erreparatuko diegu:

- I. Egoera legala
- II. Antolaketa
- III. Eskola-zerbitzuak
- IV. Finantziazioa
- V. Eraikinak
- VI. Proiektuaren dimentsio soziala
- VII. Hezkuntza Proiektua
- VIII. Ikastolako langileak eta ikasleak
- IX. 50. urteurrenaren ospakizunak



- Alegalitatearen urteak, 1962-1970
- Legeztapenaren ondorengoak, 1972...



I. EGOERA LEGALA

## 1. Alegalitatearen urteak

Baimen ofizialik eza,  
1962-1969

Txingudi Ikastolak, sortu zenetik legalizatu zen arte, ez zuen inongo baimen ofizialik izan eskola emateko. Horregatik, ikasleen egoera oso zalantzazkoa zen, ez baitziren inongo agirian jasotzen haurrek egindako ikasketak. Arazo larri hori bideratze aldera, Irungo La Salle eta El Pilar ikastetxeei laguntza eskatu zitzaien. Eta eskuzabaltasunez, Ikastolako neska-mutilen ikasketak zerifikatzen zituzten eta "cartilla escollar"etan jasota gelditzten ziren.

Halaber, Espainiako administrazioak, Gobernu Zibiletik nahiz Hezkuntza Delegaziotik, etengabeko mehatxuen eta jazarpenaren aurrean, aipaturiko ikastetxeen laguntza handia izan zen. Ikastolako neska-mutilak haien ikasleen zerrrendetan agartzen baitziren, eta modu horretan egoera larriak saihesten ziren. 1969an, Gipuzkoako Ikastolen Elkartea eratu zen sortu berriak ziren ikastolak indarrak batzenko eta zituzten arazoei aurre egiteko: klandestinitatetik ateratzea eta legalizatzea, finantzazioa lortzea, bitartekoak sortzea... Espainiako Hezkuntza Ministerioarekin egin ziren negoziazioetan, Elkarteak ikastolen ordezkaritza hartu zuen.

Legalizaziorako aukera,  
1970

Espainiako "Ley General de Educación y del Financiamiento de la Reforma Educativa" k 6-14 urte arteko eskolatze derrigorrezko eta doakoa ezerri zuen.

Legeztapenaren beharra argi ikusi zen, eta xede hori lortzeko Elizari laguntza eskatu eta haren babesean lortu zen legeztapena.

Prozesu horretan guztian, Iñaki Zubeldia apaizak egindako kudeaketa oso azpimarragarria da.

Halaber, eskertzeko da Santiago Balenciagak —Irungo Juncal Elizako parrokoak— izan zuen jarrera eta eman zuen laguntza. Bera izan baitzen ikastola legeztatu berriaren buru.

Gipuzkoan beste 78 ikastola (%68) legalizatu ziren Elizaren laguntzarekin.

1970-1983: Hondarribiko eta Irungo Ikastola

Hondarribian, ikastola 1964an sortu zen, Gurutzearen Alabak Ikastetxearren babespean.

Bi herrietako ikastolen arteko elkarlana eta laguntza beharrezkoak izan ziren proiektuak aurrera atera ahal izateko.

Irungo Ikastolak eta Hondarribiko Ikastolak Oinarrizko Hezkuntzako Orokorreko Ikastetxea osatu zuten, **Escuela Parroquial Nuestra Señora del Juncal** izenarekin. Bi ikastolek bat bezala funtzionatu zuten, eta Hondarribiko ikasleek Irungen bukatzen zituzten OHKO ikasketak.

Ikastolen egoera normaltzen joan zen heinean, Hondarribiko Ikastola sendotzen joan zen eta ikasleak herri bertan ikasi behar zutela hobetsi zen. 1983ko ekainaren 16an, Hondarribiko Ikastola Kultur Elkartea sortu zen eta bere ibilbide propioari ekin zion.

## 2. Legeztapenaren ondorengoak

Oinarrizko Hezkuntza  
Orokorreko Ikastetxea, 1972

Ikastolak 1.080 ikasleentzat OHOko ikastexe elebiduna izateko eskaera egin zuen, (1972/06/27), eta onartua izan zen.

Bestalde, eskualdean euskaraz irakasten zuen beste ikastetxerik ez zegoenez, Irungo eta Hondarribiko ikastolen izaera berezia aldarrikatu nahi izan zen.


Horretarako, Espainiako Hezkuntza Ministerioari gizarte-intereseko ikastetxea izendatzea galduet zitzaiot "OHOko Irungo eta Hondarribiko eskualdeko ikastetxe elebiduna" izenarekin (1974/10).

Ministeritzak eskaera atzera bota zuen (1975/07).

### PATXI ZAPIAIN

Irungo Txingudi Ikastolaren historian emakume eta gizon asko dira es-kuzabaltasunez eta ausardiaz konprometitu direnak: euskarari, euskal kulturari eta eskola eratzeari bere denbora eta ahalegina eskainiz. Zalantzak gabe, esan daiteke, denek izan dutela helburu bera: kalitatezko eskola euskalduna eratzea, seme-alabak eta ikasleak euskaldun gisa bizi daitezen.

50 urte hauetan, garai erabakigarriak egon dira Ikastola gauzatzeko ibilbidean. Sortu zeneko eta hasierako urteen garrantzia ahantzi gabe, 70eko hamarkadan hartutako zenbait erabakik markatu zuten hurrengo urteetako Ikastolaren bilakaera. Besteak beste: Ikastolaren legalizazioa, Jaitzubiako orubeak erostea, eraikina egitea, Ikastolako Idearioa adostea eta euskalduntzearen zabalkundea.



Bada pertsona bat Ikastola proiektuari buruz ikuspegi orokorra izan zuena, eta erabaki estrategikoak hartu zirenean eragin handia izan zuena: PATXI ZAPIAIN SARASOLARi buruz ari gara (1935-2011).

Hondarribiarra bera, 10 eta 16 urte bitartean kaputxinoturrekin ikasi zuen: Altsasun, Lizarran eta azkenik Hondarribiko bertako Amuteko kontuentuan. Behin fraideengandik aldendu ondoren, kontabilitate ikasketak egin zituen.

Bere lehenengo lana Bilbao Banketxean izan zuen; ondoren, Donostiako Aurrezki Kutxara aldatu zen, Municipalera, gerora Kutxa izango zena. Urte luzeak eman zituen Kutxan lanean eta 1993an jubilatu zen.

1963an, Enkarni Agirre Peluagarekin ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituzten.

Irungo Udaletxeko zinegotzi ere ibili zen 1982-1986 urteetan, urbanismo sailean. Udalean zegoela, gogor negoziatu zuen Hezkuntza Administrazioarekin D eredua familia guztientzako aukera izan zedin ikastetxe publikoetan. Ekimen horren lehen emaitza Toki-Alai ikastetxearen sorrera izan zen.

Ikastolarekiko harremana 1967an hasi zuen, seme zaharrena bertan matrikulatu zuenean. Hizkuntzari zion maitasunak eta hezkuntzari buruz zituen printzipioek eraman zuten Ikastola proiektuarekin goitik behera lotzera; dena emanik, bere baitatik ahal izan zuen guztia eskainiz, kalkulu xuhurrik batera gabe. Horretan ere, Enkarni emaztea bidaide leiala izan zuen. Ikastolako Juntako buru izan zen 1968tik 1975era arte, eta idatziz utzi zituen gogoetan eta Ikastolako Asanbladetako aktetan (1970-1977) bere ideien, iritzien eta proposamenen berri izan dezakegu. Haren kezkaren eta konpromisoaren neurriaren isla ere badira.

Ikastolan aritutako urteetan bi izan ziren nagusiki bere lan esparruak: batetik, Ikastolaren legeztapena eta Legeak (1970) eskatzen zuen azpiegitura osoa eraikitzea; eta, bestetik, Ikastolaren idearioa adostea.

Iñaki Zubeldia apaizarekin harreman estua izan zuen; erabakigarria izan zen Irungo Elizaren babesla Ikastolaren legeztatzea lortzeko orduan. Kudeaketarako zeukan senak eta inguruko banketxe, aurrezki kutxa eta enpreseekiko harremanek ahalbidetu zuten erabaki garrantzitsuak gauzatzea, besteak beste Jaitzubiako orubeen erosketa eta eraikina altxatzea, eta hori mamitu ahal izateko finantziazio sistema antolatzea eta maileguak lortzea.

1973an, Ikastolaren Idearioa egiteko beharra adierazi zuen, Ikastolaren nortasun propioa garatzen laguntzeko, baita horretarako ideia nagusiak proposatu ere, hala nola:

- Ikastola herrirako eskola eta euskal eskola izan behar zuela aldarrikatzen zuen. Denon eskura egon behar zueña. Inor ezin zen gelditu ikastolatik kanpo diru arazoengatik. Arazo horiek gainditzeko beka sistemak eta dirulguntzak proposatu zituen.
- Ikastolako ikasleek euskal giroa behar zuten ikastolatik kanpo, eta inguruan murgildurik egon behar zuten. Horregatik, Irungo eta Hondarribiko gizartea euskalduntzeari heldu beharko zitzaison.
- Ikastola hezitzalea behar zen, ikasleen, irakasleen eta gurasoen garapena lagunduko zuena.
- Guraso eskola eratzea proposatu zuen: euskara ikasteaz gain, Euskal Herriko historia, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaren trataera, garaiko egoera ekonomiko eta politikoari buruzko hausnarketa... lantzeko. Irungo Ikastolan gurasoak elkarren hezitzale izan zitezen ekanpen handia egin zuen.

Aipaturiko ideiak 1977ko Asanblada nagusian onartutako Idearioan jaso ziren.

Patxi Zapainek proposatutako eskola ereduak helburu izaten jarraitzen du gaur egun ere. Kontuan hartzea modukoa da, dudarik gabe, leku hori Ikastolako belaunaldi berriko gizon eta emakumeek datozen urteetako ikastetxea berrasmatzeko orduan.

## Euskal Ikastolen Erakundea, 1980-1988

Egoera politiko berriak erabat aldatu zuen ikastolen egoera. Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak eta Ikastolen Elkarteak finantziazorako eta ikastolen egoera normalzeko hitzarmena negoziatu zuten. Euskal Ikastolen Erakundea (EIKE) sortu zen.

1988an, Gasteizko Parlamentuan, Ikastolak eta Eskola Publikoa biltze-ko Legea onartu zen. Euskal Hezkuntza Sisteman hirugarren sarea antolatu nahi zen. Txingudi Ikastolak hitzarmena sinatu zuen.

## Euskal Eskola Publikoaren Legea, 1993

Gasteizko Parlamentua Euskal Eskola Publikoaren legea ebatzi zuen. Legeak bi saretan antolatu zuen hezkuntza sistema: Eskola Publikoa eta Eskola Pribatua.

Ikastolen hirugarren sarea desagertu zen.

## Txingudi Ikastolaren publifikazioa, 1994

Txingudi Ikastola Euskal Eskola Publikoaren sarean integratu zen (otsailaren 8ko 80/94 dekretua).

Publifikazioaren ondorioetariko bat, ordura arteko Txingudi Ikastolaz (3-14 urte) bi ikastetxe egitearena izan zen: Txingudi Irungo Ikastola HLHI (3-12 urte) eta Txingudi BHI (12-16 urte).

Txingudi Ikastolako publifikazioaren dekretua atera zenetik egoera administratibo berria gauzatu zen arte, bi urte pasa ziren beharrezko tramtazioak egiten ziren bitartean (1994-1996).

Eztabaida handiko hilabeteak izan ziren. Hezkuntza Sailak Ikastola Haur eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) ikastetxea izatea erabaki zuen eta Ikastolako Batzordeak berriz, bertan Oinarrizko Hezkuntza osoa (6-16 urte) izatea eskatzen zuen, ordura arte izandako irizpideari jarraituz.

Hezkuntza Sailaren erabakia gailendu zen eta bi ikastetxe egin ziren.

## Irungo Txingudi Ikastola IKASBATUAZ

publifikatutako ikastolen taldean sartu zen, 1997

Publifikatu ziren hainbat ikastolek IKASBATUAZ taldea sortu zuten 1993an. Taldearen helbura zen: ikastolen izaera, hezkuntza proiektua eta funtzionatzeko era egoera administratibo eta legal berrian gordetzea, Euskal Herriko Eskola Publiko Berria eratzen hasteko.

Hasi-hasieratik egoera berriak antolamenduzko eta funtzionamenduzko arloetan egokitzapenak eta aldaketak ekarri zituen: jangela eta garraio zerbitzuak, irakasle ordezkatze sistema, administrazioa eta idazkaritza... Horiek guztiak administrazioarekin negoziatzeko IKASBATUAZ taldeak ordezkaritza lanak egin zituen.

Irungo Txingudi Ikastolak 2007an utzi zuen taldea.

## IKASTOLAREN IZENAK

Ikastolak izen ezberdinak izan ditu. Izen aldaketa horiek bere ibilbide legala islatzen dute:


- 1962-1970: Irungo Ikastola.
- 1970-1980: Escuela Parroquial Nuestra Señora del Juncal.
- 1980-1994: Txingudi Ikastola Kultur Elkartea.
- 1994-...: Txingudi Irungo Ikastola HLHI eta Txingudi BHI.



1983an Ikastolak, identifikatzeko ikurra sortu nahi izan zuen. Horretarako, OHOKO 8.mailako ikasleen artean, ideia jasa egin zen. Ainhoa Ruiz de Arbulo ikaslearen proposamenean oinarrituta sortu zen ezagutzen dugun TXINGUDITXOA.



## II. ANTOLAKETA





50 urte hauetan, Ikastola antolatzeko eran bi garai daude:

- Bere sorreratik publifikatu zen arte, 1962-1994
- Euskal Eskola Publikoan integratu zenetik aurrera, 1994-...

## Ikastolaren sorreratik publifikatu zen arte, 1962-1994:

Ikastola egiten hasi ahal izateko borondatea, partaidetza eta auzolana ezin besteko lanabesak izan ziren. Gurasoak, andereñoak eta maixuak, Ikastolako jarduera egunero gauzatzeko behar zena egiteko prest zeuden: eskola emateko lokalak aurkitu eta atondu, zerbitzuak antolatu, ikasmateriala sortu, Spainiako administrazioarekin egoera legala negoziatu, finantzazioa lortu... beste gauza askoren artean. Ardurak askotarikoak ziren, bakoitzak ahal zuen neurrian erantzuten zuen, eta funtzionamendurako esparru guztietan parte hartzen zuten.

Ezin ahantzi ere, Ikastolako bazkideak eta sustatzaileak, eta mota guztiako laguntha eskaintzen zuen herriarrak, Ikastolan seme-alabarik izan gabe.

Ikastola handitu ahala, antolamenduaren egituraketa eratzen joan zen. Egitekoak banatzen joan ziren eta esparru ezberdinak ardurak eta funtzioak zehazten. Horrela, funtzionamendurako egitura osatu zen.

Hainbat urteetan garatutakoa, Txingudi Ikastolako Idearioan (1977) eta Barne Araudian (1980) jasota gelditu zen.

Hona hemen laburbilduz antolamenduaren ardatzak:


### 1. Ikastolako organo nagusiak

- Ikastolako Batzar Nagusia
- Junta edo Biltzar Exekutiboa
- Zuzendaritza
- Gelako arduradunak
- Irakasle taldea: Irakasleen asanblada, etapako koordinatzaileak
- Gerentea

### 2. Ikastolako Idearioa eta Barne Araudia

### 3. Antolaketa laborala:

- Enpresako komitea
- Batzorde parekidea
- Ikastolako langileen asanblada

**IKASTOLAREN ORGANIGRAMA**



## 1. Ikastolako organo nagusiak

### • **Ikastolako Batzar Nagusia**

Antolaketa motak arestian aipatutiko partaidetzari eta auzolan izpirituari erantzuten zien. Horrela, Batzar Nagusia edo Asanblada organo gorena gisa eratu zen.

Ikastolako Batzar Nagusia gurasoek, irakasleek, langileek eta sustatzaileek osatzen zuten. Asanblada zen erabakitzeko organo gorena. Ikastolako hezkuntza eredu eta bere garapenerako ildo estrategiko guztiak erabakitzenten zituen: idearioa onartzearena, Ikastola handitzearena, eraikinak egitearena, finantzazio iturriena, inbertsioak egitearena, ikastolako akonfesionaltasunarena, publikazioarena...

### • **Gelako arduradunak**

Ikasle taldearen gurasoen artean aukeratutako aitek edo amek osaten zuten lan taldea.

Haien ardurak mota askotarikoak ziren:

- Andereño eta maixuak lagundi
- Antolakuntzazkoak: jarduera osagarriak antolatu, ikas irtenaldiak antolatu, ikasleak garraiatu eta zaindu, kanpaldiak egin...
- Instalazioen mantenuzkoak: ikasgelak mantendu eta margotu, jolas lekuak atondu...

### • **Junta edo Biltzar Exekutiboa**

Asanbladatik aukeratutako Junta edo Biltzar Exekutiboa organo beteorazlea zen. Ikastolako Juntaren eginkizunak honakoak ziren, besteren artean: Asanbladan erabakita-koak gauzatzea, Asanbladari informatzea eta proposamenak egitea, Ikastolaren garapena eta funtzionamendua sendotzearen, eguneroko jardunerako behar zituenak lortzea, irakasleak eta langile ez-irakasleak kontratatzea, funtzionamendua bermatzea, Ikastolaren ordezkaritza iza-tea esparru ekonomiko, politiko, sozial eta laboralean.

Biltzar exekutiboaren burua Ikastolako lehendakaria zen. Hona hemen, Ikastolako presidenteak izan zirenak:

Patxi Zapiain, Josema Alberdi, Joxean Garaialde, Angel Martinez, Martin Izagirre, Koldo Alberdi.



### • Zuzendaritza

Ikastolaren legalizazioak sortu zituen beharrei erantzuteko Zuzendaritza eratzea erabaki zen.

1974an lehenengo zuzendaria, Mikel Ugalde (1974-1976), kontratatu zen. Bere eginkizun nagusien artean honakoak azpimarratu daitezke: Idearioaren eta Hezkuntza Proiektuaren oinarrizko irizpideak adostea, irakasleen arteko harremana sendotzea, haien formakuntza sustatzea, ikasleen ebaluaziorako irizpideak lantzea...

Ikastola legeztatu zenetik publifikatu zen arte, Ikastolako Batzordeak, Ikastolako klaustrokideen iritzia kontuan hartuz, izendatzen zituen zuzendariak —lehenengoa izan ezik—. Hona hemen izendapenak eta urteak:

1974-1976: Mikel Ugalde

1976-1979: Eustas Egues

1979-1981: Jexus Mari Mendizabal

1981-1982: Markos Amundarain

1982-1991: Markos Amundarain, zuzendari exekutiboa, eta Eustas Egues, zuzendari pedagogikoa

1991-1996: Markos Amundarain

**1980: OHOKO 2.etapako ikasle eta irakasleen arteko partidua**

### • Irakasleen Asanblada

Ikastolaren sorreratik andereño eta maisuen papera erabakigarria izan zen proiektuaren garapenerako, compromisoa eta borondatea haien lanaren ezaugarriak izan zirelarik.

Irakasleriaren antolaketa arduen arabera eratzen joan zen. Irakasleen Asanblada zen erabaki pedagogikoak zein funtzionamendukoak hartzeko gunea. Protagonismo handia zeukan eskola bizitan, bilerak maiztasun handiz egiten ziren. Erabakiak gehiengoz hartzen ziren eta lotesleak ziren. Ikastolako Juntarako irakasleen ordezkariek bertan aukeratzen ziren. Halaber, irakasleen lan-taldeen antolaketa eta haien arteko koordinazioa bideratzen zuen.

### • Etapetako koordinatzaileak

Irakasle koordinatzaileen funtzioko garrantzi handia izan zuen. Haiek baitziren funtzionamenduzko beharrak zein antolamendu pedagogikoa zuzendaritzarekin kudeatzen zituztenak.

### • Gerentea

Kudeaketa ekonomikoa ere gero eta dimentsio handiagoa hartzen ari zen, 1979an gerente bat kontratatu zen —Fernando Babaze ekonomilaria—. Ikastolako administrazio orokorra bere ardurapean gelditu zen.





## 2. Ikastolako Idearioa eta Barne Araudia

Sortu zenetik, Ikastolako hezkuntza komunitatean pil-pilean zeuden: euskara eta euskal hezkuntzarekiko motibazioak eta igurikapenak; Euskal Herriko hezkuntza sistema eraikitzeako ideiak, iritziak; Ikastolan egiteko erak... Horiek denak adostu nahi ziren eta jaso, Idearioa osatuz. Dokumentu hori denontzat erreferentea izan zedin eta Hezkuntza Proiektuaren garapenerako norabide.

Horretarako, 1974. urtetik aurrera, eta sustatu nahi ziren printzipio demokratikoak kontuan hartuta, Ikastolako Zuzendaritza eta Batzordea hasi ziren hausnarketarako ideiak prestatzen eta eztabaidearako guneak antolatzen, gelaka eta zikloka. Bilera asko egin ziren, eztabaidea lukeak, eta ezadostasunak ere, egon ziren. Azkenik, 1977ko apirileko Batzar Nagusian egindako botazioan Idearioa onartu zen.

Hona hemen Idearioaren printzipio nagusiak:

- Ikastola Euskal Herriko jendea hezteko sortua zen eta haurren heziketa helburu zuen.
- Gizarte zuzen eta demokratiko batzen alde lan egingo zuen.
- Ikastolan aukera berdintasuna eta doakotasuna gizarte maila guztietaira iristea bermatuko zen.

- Euskal Herriaren burujabetasuna lortzen lagunduko zuen, lotura ideologikotik eta politikoetatik at.
- Akonfesionala zen, aukera erlijioso ezberdinak errespetatuz.
- Pedagogia egokiena erabiliko zuen, aditzera emandako printzipioak lortzeko.
- Oinarrizko Pentsaeraren eta Barne araudiaren interpretazioa Bartzar Nagusiaaren eskutan uzten zuen, eta berari zegokion alor horretan erabakiak hartzea.

1980an, Barne Araudia bukatu eta Asanbladak onartu zuen.

Ikastola handitzen zihohan heinean, funtzionamendu esparruak zehazten joan ziren. Txingudi Ikastolako Hezkuntza Komunitatearen egituraketa eta erabaki guneak zedarriztatu ziren. Ikasgela abiapuntua harturik erakundearen organigrama taxutu zen. Iksle, guraso, irakasle eta talde bakoitzaren ardurak eta harreman guneak definitu ziren.

### 3. Antolaketa laborala

Laboral ikuspegitik ere, lan baldintzak eta soldatik hobetzen joan ziren. Irakasleen eta zerbitzuetako langileen kontratazio kopurua urteitik urtera izugarri handitzen ari zen. 1981-82ko ikasturtean 84 irakasle lanean ari ziren Ikastolan.


Lan harremanak egituratzearren, hauteskunde sindikalak egiten hasi ziren. Langileek, bai irakasleek baita ez-irakasleek ere, beraien ordezkarriak hautatu zitzuten, eta horrela Batzorde Sindikala osatu zen.

- **Enpresako Komitea** 1982an sortu zen, irakasleen eta langile ez-irakasleen ordezkariez osaturikoa. Lan harremanak eta lan baldintzak erregulatzea zen komitearen eginkizuna.

Ikastolen Konfederazioaren ordezkarien eta irakasleen ordezkarri sindikalen artean negoziatu eta sinatu zen Ikastoletako lehenengo Lan Hitza, langileen oinarrizko lan baldintzak erregulatuz.

- **Batzorde parekidea** ere osatu zen, bere funtzia irakasle berrien kontratazioa eta kontratatzeko bamerro publikoa egitea zen. Batzordea honela osatzen zen: zuzendaria, Juntako lehendakaria, gurasoen ordezkarriak, eta enpresako komitearen ordezkarriak.

- **Ikastolako langileen asanblada** langile guztien batzarra zen. Bileretan irakasleek eta langile ez-irakasleek parte hartzen zuten. Gai politiko-sozialak eta laboralak eztabaidatzeko gunea zen, eta erabakiak lotesleak ziren.



# Euskal Eskola Publikoan integratu zenetik aurrera, 1994...

Euskal Eskola Publikoaren Legeak (1993) bi saretan antolatu zuen EAEko hezkuntza sistema: Eskola Publikoa eta Pribatua. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastolek osaturiko hirugarren sarea desagertu zen. Arazo ekonomikoak zirela eta, Txingudi Ikastolako Asanbladak publifikazio bidea hartu zuen.

Euskal Eskola Publikoaren sarean sartzeak aldaketa asko ekarri zituen. Horien artean, bi ikastetxetan banatzeak —Txingudi Irungo Ikastola HLHI eta Txingudi Bigarren Hezkuntzako Institutua— aldaketa handia ekarri zuen.

Bi ikastetxe egiteak esparru akademikoa, zein kudeaketako ezberdin-tzea ekarri zituen, alegia bi organo goren, bi zuzendaritza, bi klaustro, bi araudi...

Halere, bi ikastetxe izan arren Jaitzubiako eremu bera konpartitzen jarratu zuten eta hainbat zerbitzu ere: kirol espazioak, garraioa, jangela. Eta bi ikastetxeentzat Guraso Elkar-te bera eratu zen.

Egoera berriak antolaketa berria zekarrenez transizioa bi urtetan egin zen (1994-1996).

Ondoren jasotzen dira antolaketa berriaren atalak:

## 1. Organo nagusiak

- Ordezkaritza Organo Gorena
- Zuzendaria
- Irakasleen klaustroa

## 2. Antolakuntza Araudia

## 3. Ikastolako Gurasoen Elkar-tea

### 1. Bi ikastetxeetako organo nagusiak

#### • Ordezkaritza Organo Gorenak

Publifikazioarekin, beste aro bat hasi zen, Txingudi Ikastolako Asanblada —organo erabakitzale nagusia— desagertu zen.

Ordura arteko erabaki guneak egituraketa berriari egokitut ziren. Sorturiko bi ikastetxeek, beti ere Euskal Eskola Publikoaren legea betez, Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) bana eratu zuten; guraso, irakasle, ikasle (adinaren arabera), zerbitzuetako langile eta udaleko ordezkariaz osaturikoa.

Bere egitekoak eta erabaki esparruak delako legeak zehazten dituenak dira.

#### • Zuzendariak

Ikastetxe bakoitzak bere zuzendariak izan ditu, Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak izendatuta.

Hona hemen Ikastola publifikatu zenetik izandako zuzendariak:

#### Irungo Txingudi Ikastola HLHI

- 1996-2000: Elena Berazadi
- 2000-2003: Junkal Irastorza
- 2003-2005: Miren Pikabea
- 2005-2008: Elena Berazadi
- 2008...: Ana Erasun

#### Txingudi BHI

- 1996-2000: Pili Azpiroz
- 2000-2004: Martxel Telletxea
- 2004-2008: M.Carmen Munduate
- 2008-2012: Javier Alegre
- 2012...: Sergio Arnaiz

HEZKUNTZA	SAILA	HLHI
<b>GOIBATZORDEA (OOG)</b>	<b>ZUZENDARITZA</b>	<b>IRAKASLE EZ DEN PERSONALA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• ZUZENDARIA</li> <li>• IRAKASLEEN ORDEZKARIAK</li> <li>• GURASOEN ORDEZKARIAK</li> <li>• ZERBITZUETAKO LANGILEEN ORDEZKARIA</li> <li>• UDALEKO ORDEZKARIA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzendaria</li> <li>• Ikasketa Burua</li> <li>• Idazkarria</li> </ul>	<b>UDALEKO LANGILEA</b>
<b>IRAKASLEEN KLAUSTROA</b>		<b>GURASO ELKARTEA</b>
EUSKARA BATZORDEA	PEDAGOGIA BATZORDEA	INGURUMEN BATZORDEA
IKASLEAK	IKASLEAK	IKASLEAK
<b>GURASOEN ASANBLADA</b>		

## • Irakasleen Klaustroak

Ikastolako irakasleen funtzionarizazioa izan zen beste aldaketa esanguratsua. Irakasleen lan egoera aldatu egin zen. Gehienak Hezkuntza Saileko funtzionarioak egin ziren. Horretarako, oposaketak prestatu eta egin behar izan zituzten. Oposaketak egin ez zituztenak laboral gisa kontratatu ziren.

Bi ikastetxe egin zirenez, Hezkuntza Sailak bi lanpostu-zerrenda egin zituen. Ikastetxe bakoitzeko lanpostuak betetzeko baldintzak ezarri ziren, eta horren arabera bi klaustroak osatu ziren. Orokorean, irakasleen eskubide laboralak mantendu egin ziren, alegia, Txingudi Ikastolan egindako lan urteak eta aintzinatasuna, errespetatu zitzaitzien; halaber, Ikastola bertan lan egiteko eskubidea.

Euskal Eskola Publikoaren legeak (1993) zedarritu zituen irakasle klasstroaren konposaketa eta funtziok.

## 2. Antolakuntza Araudia

Txingudi Irungo Ikastola HLHIko eta Txingudi BHIko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak egin ziren, 1996an eta 2001ean hurrenez hurren.

Araudietan jaso ziren: ikastetxe bakoitzeko organoaren osaketa, haien konpetentziak, partaideak aukeratzeko prezidura. Halaber, bizikidezta arauak, ebaluazio erreklamazioak eta ikasleen eskubide eta betebeharrak.

## 3. Ikastolako Gurasoen Elkartea

1994an Txingudi Ikastolako Guraso Elkartea sortu zen.

Publifikazioarekin sorturiko bi ikastetxeen arteko Guraso Elkarte bera osatu zen, alegia, 3-16 urteko ikasleen guraso elkartea sortu zen.

Txingudi Ikastolako historian eta kulturaren, gurasoaren erabakitzeko ahalmena, partaidetza eta laguntena erabakitorak izan ziren proiektuaren garapenerako. Ikastola publifikatu ondoren, erabakitzeko ahalmena galdu zen; baina, talde izpiritua mantendu nahi izan zen, eta parte hartzeari beste ate bat zabaldu zitzaion.

Gurasoak, Euskal Eskola Publikoaren legeak arautzen zuen arabera antolatu ziren. Baino, indarrak metzearren, bi ikastetxeetako OOGko ordezkariek eta Guraso Elkartearenak pertsona berak izango zirela adostu zen. Hortaz, gurasoek ikuspegitik, hiru organoaren arteko komunikazioa eta irizpideen batasuna bermatu nahi zen.

Gaur egun, bizitasun osoz jarraitzen du Elkarteak lanean.

Hona hemen Txingudi Ikastolako Guraso Elkartearen izandako presidenteak: Anton Mendiola, Angel Arizmendi, Mikel Lopez de Arbina, Iñaki Dorronsoro, Silvestre Balerdi.

HEZKUNTZA SAILA		BHI
<b>GOI BATZORDEA (OOG)</b>	<b>ZUZENDARITZA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzendaria</li> <li>• Irakasleen Ordezkariek</li> <li>• Gurasoen Ordezkariek</li> <li>• Zerbitzuetako Langileen Ordezkarria</li> <li>• Irakasleen Ordezkariek</li> <li>• Udaleko Ordezkarria</li> </ul> <b>IRAKASLEEN KLAUSTROA</b>	<b>IRAKASLE EZ DEN PERTSONALA</b>  <b>GURASO ELKARTEA</b>
	<b>KOORDINAZIO BATZORDEA</b> Mintegiko buruak + Zuzendaritza	<b>MINTEGIAK</b>  <b>IKASLEAK</b>
IKASLEAK	IKASLEAK	IKASLEAK
<b>GURASOEN ASANBLADA</b>		IKASLEAK

- Idazkaritza eta administrazioa
- Garraioa
- Jangela
- Eskolako materialaren biltegia
- Instalazioen garbitasuna  
eta mantenua



# III. ESKOLA- ZERBITZUAK





**S**ortu zenetik, Txingudi Ikastolako antolaketan, eskola-zerbitzuak eta haien kudeaketa lehentasunezko jarduera izan zen. Egoerak horrela aginduta: garraio, jangela, idazkaritza, instalazioen garbitasun eta mantenu zerbitzuak sortu eta antolatu ziren, guraso eta irakasleen partaidetzari eta inplikazioari esker. Hona hemen Ikastolaren antolamendurako bizkarrezurra izan diren eta diren zerbitzuak:

- Idazkaritza eta Administrazioa
- Garraioa
- Jangela
- Eskola materialaren biltegia
- Instalazioen mantenu eta garbitasuna.

## Idazkaritza eta administrazioa

Ikastola eratu zenean, idazkaritzako lanak gurasoek egiten zituzten. Zerbitzu honek ez zuen egoitza finkorik, eta lan horren arduradunen etxeetan biltzen ziren erreziboak eta kontabilitatea egiteko. Askotan, hileko kuotak kobratzeko etxez-etxe ibiltzen ziren gurasoak.

Betherramen antolatu zen lehenengo idazkaritzarako gela, eta Jaitzubiako eraikina egin zenean bertan eratu zen zerbitzua 1977an.

Ikastola handitzean administrazio eta idazkaritza lanak areagotu egin ziren; horregatik, Ikastolako batzordeak erabaki zuen zerbitzua profesionalizatzea.

Ordura arte, kontraturik gabe idazkarri lanak egiten zuen gurasoa kontratatu zen 1978an. 1979an, gerentea kontratatu zen; eta 1981ean, administrazio zuzendaria.

Zerbitzu honen eginkizunak funtsekoak ziren Ikastolaren funtzionamendurako, bertatik kudeatzen baiziren: alor ekonomikoa, administrazio orokorra eta akademikoa. Zerbitzuak ere: eraikinen mantenu eta obrak, garraioa, jangela, garbiketa, biltegia, hornitzaleak...

“Idazkaritza” erreferentzia puntu bihurtu zen ikasle, irakasle, guraso eta komunitate guztientzat.

Publifikatu ondoren, 2000. urtean, zerbitzuaren hainbat funtzi Hezkuntza Administrazioaren esku gelditu ziren, eta Txingudi Ikastolak zuen antolaketa desegin zen. Ikastetxe bakoitzean idazkaritza zerbitzua antolatu zen.

Ikastolako gerentearen postua desagertu zen, eta lan horretan ari zen langilea Eusko Jaurlari tzako administrazio orokorrean lantokia eman zioten.

Irungo Txingudi Ikastola HLHIn matendu zuten idazkari-administratzai le postua, harik eta idazkaria jubilatu zen arte. Ondoren, Lehen Hezkuntzako Ikastetxea zenez, irakaslerien esku gelditu zen lan hori. Txingudi BHlrentzat berriz, Hezkuntza Sailak beste idazkaritza zerbitzua eratu zuen.



## Garraio zerbitzua

Txingudi Ikastola aintzindaria izan zen eskola garraio zerbitzua antolatzen eta eskaintzen.

1967. ikasturtean eratu zen. Irungo eta Hondarribiko auzo ezberdinetik ikasleen joan-etorriak antolatu beharra zegoen. Gurasoek Villavesaren zerbitzua baliatzen zuten, autobuseko txartelak ikasleentzat erosiz. Hastapenetan, garraioaren zaintza andereñoek egin zuten (1967-1969), ondoren gurasoek hartu zuten ardura hori (1970). Lehenengo gurasoa lan horretan aritu zena Mariani Estanga izan zen.

Ikasleen kopurua handitzean, inguruko autobus konpainien zerbitzuak kontratu ziren ikasleen garraiorako. Halaber, garraio begiraleak kontratatu ziren hauaren zaintza eta seguritatea bermatzeko. Gurasoek oso-osorik finantzatu zuten zerbitzua 1994 arte.

Ikastola publifikatu zenetik (1994), garraio zerbitzua eta bertan lanean ari ziren langileak Hezkuntza Sailaren esku gelditu ziren. Baino, Ikastolaren iritziz, administrazioak kontratatutako autobusen kopurua ez zen aski ikasleen bidaiak era eroso eta azkarrean egiteko. Horregatik, Guraso Elkartearren dirulguntza ezin bestekoa izan zen zerbitzua osatzeko. Egun ere, gurasoek jarraitzen dute ordaintzen garraioaren parte bat.

Irungo Txingudi Ikastola HLHIK eta Txingudi BHIK jangela eta garraio zerbitzuak konpartitzen dituzte, bi ikastetxe izan arren.



50. urteurrenaren Ikastola  
Eguneko garraio zerbitzu  
berezia

## Jangela zerbitzua

Zerbitzu hau 1972-1973ko ikasturtean antolatu zuten Betherramen. Hasieran, andereñoek zaintzen zituzten ikasleak bazkaltzen zuten bittanean; ondoren, gurasoek hartu zuten ardura hori.

1976an, Jaitzubiako eraikin berrian eratu zen jangela, bertan ikasten ari ziren ikasleentzat. Ikastolako beste eraikinetan ere jantokiak atondu ziren: Santa Elenan, Anakan, Eguzkizan... Antolaketa horrek kudeaketa lana asko zailtzen zuen.

Ikasle guztiak Jaitzubian bildu zirenean bertan eratu zen zerbitzua (1994).

Eskola Publikoaren sarean sartuz geroztik, jangela zerbitzua Administrazioak subentzionatzen du; eta kudeaketa eta antolaketa berriz, 1998tik "kudeaketa zuzena" deituriko modalitatearen arabera egiten da. Horrela, janaria, hornitzaleak eta langileria Hezkuntza Sairetan kontratzen eta gestionatzen dira.

Jangela antolatu zenetik bazkaltiarraren kopurua urtez urte handitzen joan zen, eta azken urte hauetan ia ikasle guztiak erabiltzen dute zerbitzu hau. Gaur egun, 1.120 bazkaltilar dira egunero jangelan bazkaltzen dutenak, eta 15 begiralek eta 10 sukaldoko langilek lan egiten dute bertan.

Eguerdian, hainbat jarduera osagari antolatzen dira ikasleentzat Gu-

raso Elkarteak ordainduta; beti ere, Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren osagarri. Gurasek bere gain hartzen dituzte: 2 begirale iraunkor, eta beste 3 pertsona jardueraren arabera. Ekimen honek laguntzen du jangela zerbitzua hobetzen. Berriro ere, Guraso Elkartearen laguntza guztiz estimagarria agerian utziz.

## Eskolako materialaren biltegia

Ikastolako gurasoek sorturiko beste zerbitzua da.

Hasieratik, Asanbladak erabaki zuen ikasleek behar zuten material guztia Ikastolak erostea eta kudeatzea. Familiek ordaindutako kuotarekin, eskola jardunerako behar ziren testuliburuak, material osagarriak eta lan tresneria erosten ziren.

Zerbitzu hau antolatzerakoan honako irizpideak kontuan izan ziren: Batetik, irizpide ekonomikoa: eskola materiala askoz merkeagoa baitzen kopuru handitan erostea. Bestetik, irizpide funtzionala: ikasturtearen lehenengo egunetik testuliburuak eta bestelako materiala ikasleen eta irakasleen esku zeuden, eta ikasgeletan funtzionamendua erraztu egin zen. Eta azkenik, berdintasunezko irizpidea: materiala ikasle guztiei ematen zitzaien, arazo ekonomikoak izan zitzaketen familien lasaimenerako.

Testuliburuak ikasturterik ikasturterra berrerabilten ziren. Ikasleek konpartitu behar zituzten liburuak eta horren arabera zaindu ere. Ikasturte-rako oso hondatuak zeudenak eros-ten ziren bakarrik, horrela gastua gu-txitu egiten zen.

Antolaketa mota horrekin, ikasleen artean hainbat balore praktikan jar-ten ziren: konpartitzearena, guztiona zena zaintzearena, komunitatearen zentzua...

Bere sorreratik, Ikastolak izan zuen ikuspegি aurrerakoia eta demokratikoa nabarmenago gelditzen da, kontuan hartzen bada, hezkuntza sistema ofizialean 2007. urte arte ez zirela testuliburuak subentzionatuak izan.

1977an, Jaitzubiako eraikinean zen-tralizatu zen eskola materiala, eta biltegia kudeatzeko arduradun bat jarri zen

50 urtetan gurasoek eskola materia-la eta testuliburuak finantzatu dituz-te. Ikastola publifikatu zenetik, Txin-gudi Ikastolako Guraso Elkarteak (1994) jarraitzen du zerbitzua finan-tziatzen eta kudeatzen. Langile bat arduratzen da biltegiaz, ikasle eta irakasle guztiak eskura izan ditzaten baliabideak.

## Instalazioen garbitasuna eta mantenua

Hasierako urteetan, ikasgelen eta komunen eguneroko garbiketa, instalazioen mantenua, margotzea eta mota orotariko konponketak auzolanean egiten ziren guraso, andereño eta maixuen artean.

Ikasleen eskola jarduna bukatzen zenean edo/eta aste bukaerak apro-betxatzen ziren lanak egiteko. Guraso askok oporrak ere erabiltzen zi-tuzten Ikastolan lanean aritzeko.

Gelako arduradunen funtzioa oso importantea zen lanak antolatzeko. Andereñoek eta maixuek haiengana joten baizuten arazoak zeudenean.


1982an, Irungo Udaletxearekin akordioa egin zen, eta garbitasuna eta hainbat mantenuzko lanak udalaren esku gelditu ziren.

Ikastola publifikatu zenean (1994) Irungo Udaletxeak Irungo Txingudi Ikastolako HLHiko eraikinen man-tenuaren ardura hartu zuen, Euskal Eskola Publikoaren Legeak horrela araututa.

Txingudi BHiko instalazioen mante-nua eta garbitasunaren ardura be-rriz, Hezkuntza Sailarena da.

Adminstrazioen erantzunkizuna izan arren —Irungo udala eta Hezkuntza Saila—, Jaitzubiako eraikinen man-tenu eta egokitzapen asko Guraso Elkartearren dirulaguntzaz egin dira urte hauetan. Adminstrazioen inber-tsioak iritsi ez direnean, gurasoen finantziazoari esker egin ahal izan dira: isolamendu lanak, kirol piste-tan konponketak, Haur Hezkuntzako pasabideen itxiturak, ikasgelen ber-moldaketak...





- Autofinanziazioa
- Instituzioen finantziazioa

N. FINANTZAZIOA





**E**guneroko jardunak sortzen zi-  
tuen gastuetarako dirua lor-  
tzea izan zen hastapenetik  
gurasoen eta sustatzaileen ardura  
nagusienetarikoa.

Diru iturriak aztertzeraikoan agerian  
gelditzen da Ikastolako proiektuak  
Irungo eta Hondarribiko herrietan  
izan zuen oihartzuna. Honetan ere:  
partaidetza, auzolana, herritarren  
eskuzabaltasuna eta borondatea  
izan ziren ezinbesteko baldintzak  
egitasmoa aurrera ateratzeko.

Hasierako urteetan, gurasoen kuo-  
tak, baziideen kuotak eta donazioak  
izan ziren diru iturri bakarra. Sarrera  
horiekin ez zen askotan iristen gas-  
tuak ordaintzeko; horregatik, dirua  
lortzeko beste jarduera asko anto-  
latu ziren: Irunen eta Hondarribian  
egiten ziren herriko eta auzoko fes-  
tetan eta ospakizun guztietañ taber-  
nak eratzen ziren; guraso, irakasle  
eta herriko jendearen laguntzarekin.  
Txerrien eta txekorren zozketak ere  
egiten ziren.

Eguberrietañ eta Santa Agedan  
Ikastolako koruek eskea egiten zu-  
ten.

Hondarribian Atxamarta Azokak izu-  
garrizko arrakasta izan zuen hainbat  
urtetan. Euskal Herriko artistek haien  
obrak eskaintzen zituzten, hala nola:  
Nestor Basterretxeak, Eduardo Txillidak,  
Remigio Mendiburuk, Graze-  
neak... Halaber, herriko jendeak mota  
guzietako "atxamartak" eskaintzen zi-  
tuen haien salmentaz dirua lortzeko.

He recibido de D. JOSE ANTONIO ..... una cole-  
cción de sellos españoles, comenzados a reunir a partir del Centenario  
del Sello Español, celebrado en 1.950, valorada, según el catálogo  
unificado Edifil, de 1.973, en PESETAS CUARENTA Y CINCO MIL.

El importe que se obtenga de la venta de la misma, debe  
destinarse a sufragar gastos de financiación de la nueva Ikastola  
conjunta Irún-Fuenterrabía.

IRUN, 16 de enero de 1.973.

Fdo.: Francisco Zapiain Sarasola

NESTOR BASTERRETXEAK  
Ikastolari eskainitako  
“SUNBILLA” eskultura,  
izen bereko herriko  
zubian oinarritua.



## 1. Autofinantzazio urteak

Enseñanzas Bidasa S.A.,  
1966

Ikasleen kopurua eten gabe handitzen ari zen, eta Espainiako autoritateen mehatxuak eta jazarpena gero eta gogorragoak ziren. Egoera horrek ekarri zuen Enseñanzas Bidasa S.A. sortzea 1966an, guraso talde batek sustaturik. Modu horretan, kudeaketa Elkartaren izenean egingo zen eta ez norbanakoarenan. Enseñanzas Bidasa S.A. ezinbesteko oinarria izan zen ikastolaren etorkizunerako.

Honakoak izan ziren Elkartaren sortzaileak:

Rafael Ugarte Oyarbide, Rafael Muño Marticorena, Antonio de la Caba Porras, Javier Goena Aldanondo, Enrique Garmendia Duinat, Andres Elosegui Zubizarreta, José Genua Guevara, Luis Arzac Jean.

Elkartaren akziodunak ikastolako gurasoak ez ezik, Irungo eta Hondarrribiko herritar asko izan ziren.

Hurrengo urteetan, Enseñanzas Bidasa S.A.k hipotekak hartu zituen eta Jaitzubiako orubeak eta Hondarrribiko Botika Baserriko lurak erosi zituen.



## Gipuzkoako Ikastolen Elkartea

Gipuzkoan sorturiko ikastolek Gipuzkoako Ikastolen Elkarte eratu zuten 1969an. Espainiako Hezkuntza Ministerioarekin premia ekonomiko eta legalak negoziatzea zen, besteren artean, bere helburua.

## Legeztapenaren bidea

1970 garrantzi handiko urtea izan zen ikuspegi askotatik. Espainiako "Ley General de Educación y del Financiamiento de la Reforma Educativa" k 6-14 urte arteko eskolatze derrizgorrezkoa eta doanekoa ezarri zuen. Legeak 8 urteko epea ematen zuen ikastetxeek egin beharreko egokitzapenak egin zitzaten.

Ikastolak legalizatzeko bidea hasi zuen. Oinarrizko Hezkuntza Orokorrerako (OHO) ikasgelak dirulaguntza jasotzen hasi ziren. Subentzia lortzeko, ikasgelek legeak eskatzen zituen baldintzak bete behar zituzten: ikasleen kopuria, espazioak, altzariak... Baldintza horiek betetzeko Ikastolako komunitatearen lana eta eskuzabaltasuna, beste behin ere, apartekoa izan zen. Kontutan hartu behar da, aipaturiko legeak Haur Hezkuntza ez zuela derrigortzen; beraz, Ikastolako ikasle eta irakasle askorentzat ez zen dirulaguntzarik jasotzen. Halere, eta Ikastolako Asanbladak horrela erabakita, Espainiako Ministeritzatik zetorren dirulaguntza ikasle eta irakasle guztien kostua finantzatzeko erabiltzen zen.

## Lehenengo orubearen finantziazioa

1972an, eraikina egitea erabaki zeanan, Jaitzubian lehenengo orubea eroski zen. Asanbladak Banketxeei eta Aurrezki Kutxeei maileguak eskatzea proposatu zuen, eta beste behin ere, jendeak oso ongi erantzun zuen. Familien eta sustatzai-leen artean 8.000.000 pezeta bildu ziren.

## Beka sistema propioa eratu zen

Ikastolan seme-alabak matrikulatzeko dirua arazoa izan ez zedin, beka sistema antolatu zen 1973an. Horretarako, diru iturri ezberdinak bilatu ziren: gehiago ordaintzen ahal zuten familiek beren aportazioa egiten zuten. Ikastolak antolatzen zituen zozketetan, herriko festetan txoznetan... eta bestelako jardueretan bildutako dirua beketarako erabiltzen zen.

## Bigarren orubearen finantziazioa

1975etik aurrera, Jaitzubian, bigarren orubearen erosketaren eta eraikin berria egitearen finantzatzio beharrari aurre egiteko, familiek diru aportazioa handiak egin zitzuten hileroko kuotatik aparte.

Ikastolako gurasoez eta sustatzai-leez osaturiko Enseñanzas Bidasoa S.A.k (1966) diru mailegu hipotekarioak hartu zituen proiektuaren eta eraikinaren gastuak ordaintzeko, 48.000.000 pezeta. Kreditu pertsonalak ere eskatu ziren, 10 gurasok 20.000.000 pezetako kreditua eskatu zuten. Konpromisu handiko urteak izan ziren.

Hartutako mailegua ordaintzeko, familiek, Ikastolan matrikula egiterakoan, diru kopuru handia ordaintzen zuten (15.000 pezeta). Sarrera pagatu ahal izateko, guraso askok aurrezki kutxetan eta banketxetan diru mailegu pertsonalak eskatu behar izan zitzuten. Berriro ere, nabarmen gelditu zen familien Ikastolarekiko atxikimendua eta eskuzabaltasuna.

## 2. Instituzioen finantziazioa

### Finantzazio hitzarmena

1980an, Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak eta Ikastolen Elkar-teak finantzazio konbenioa sinatu zuten, eta Irungo eta Hondarribiko Ikastola, beste ikastolak bezala, finantzazio publikoa jasotzen hasi zen. Egoera berriak arindu handia eman zion diru arazoari.

EAeko ikastolei ekonomikoki tratamendu berezia ematen zien Legea (29ko, 10/1988)

1988an, EAeko Parlamentuak administrazioari baimena eman zion banakako hitzarmena izenpetzeko ikastolekin, eskola publiko bilaka zi-tezen.

Lege honen bidez, EAeko ikastolei ekonomikoki tratamendu berezia eman zitzaien. Legearen onurak jasotzea, Txingudi Ikastolak eraikinen eta lurren jabetza uztearen baldintza onartu zuen.

Euskal administrazioa berriz, konprometitu zen: Ikastolak zituen zorrak, irakasleen eta langile ez-irakasleen gastua, eraikinak eta ekipamenduaren mantenua bere kargu hartzen, eskola publikoaren maila berean. Halaber, beregain gelditu ziren: funtzionamendua eta zerbitzuen gastua –jangela eta garraioa–. Bateratze legearekin erabat aldatu zen finantzaketa egoera.

Beste alorretan, ordea, Txingudi Ikastolak ordura arteko autonomia zeukan: irakasleak eta langileak zuzenean kontratatzen zituen, irakasleen ordezkatze sistema propioa zeukan, ikasle berrien kopurua mugatzan zuen...

Lege hori 1993ko Euskal Eskola Publikoko Legeak indargabetu zuen.

Haur Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eraikinak egiteko maileguen eskaera, 1990-1993

Derrigorrezko Hezkuntza 16 urte arte luzatu zenean (1990 HSOLO -LOGSE), egoera berriak erabaki garrantzitsuak hartzera eraman zuen Ikastolako komunitatea. Ordura arteko eraikinaren eta beste lokalen azpiegitura oso eskasa gelditzen baizen.

Ikastolako Hezkuntza Proiektuari derrigorrezko hezkuntza osoa garantzea zegokiola iritzita, Asanbladak erabaki zuen bi urteko luzapena bertan integratu behar zela.

Jaitzubiako eraikinean, ordea, ez zegoen lekurik 15 eta 16 urteko neska-mutilek behar zitzuten instalazioak kokatzeko. Halaber, Haur Hezkuntza eta Hasiera Zikloa Irungo auzoetatik barriaturik zeuden, funtzionamendua eta mantendua zailduz.

1975ean, Jaitzubian erositako bigarren orubean, 16.000m<sup>2</sup>, Haur Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eraikinak egitea erabaki zen.

Orubeak prest zeuden, eraikinaren proiektua egin eta pedagogia plana osatu behar ziren.

Ikastolan zeuden subentzioen fondoekin obrak hasi ziren. Baino, berrehala eskatu behar izan zen kre

ditoa. Bi entitateri esku zitzaien –Caja Laboral-Euskadiko Kutxari eta KUTXAri– 600.000.000 pezeta guztira. Bakoitzak erdia jartzeko konpromisua lortu zen. Ikastolako Batzordeko kideek bere ondasunekin bermatu zuten mailegua.

**B**erriore ere, 20 urte ondoren, Txingudi Ikastolako beste guraso belaunaldi batek eskuzabaltasunaren, partaidetzaren eta konpromisoaren baloreak agerian jarri zituzten sinesten zuten proiektua gauzatzeko.

Entitate finantzieroek ukatu zuten kreditua

Arestian azaldutakoa gertatzen ari zela, Euskal Eskola Publikoaren Legea (1993) onartu zen Euskal Parlamentuan. Lege horrek EAEn bi hezkuntza sareak ezarri zituen, sare publikoa eta sare pribatua.

Ikastolak eta Eskola Publikoa Bateratze Legea (29ko, 10/1988) desagertu zen, eta berarekin ordura arteko finantzazio sistema.

Eusko Jaurlaritzak EAEko ikastolei sare publikoan integratzeko aukera eskaini zien.

Txingudi Ikastolak eskatutako kredituari dagokionez, Caja Laboralak, egoera politiko-ekonomiko berrian, bidera ezina ikusi zuen maileguaren ordainketa eta ukatu zuen dirua. Halaber, egoera horretan, KUTXAk ere kendu zuen maileguaren bere zatia.

Finantziajio ezak sorturiko egoera

1993ko maiatzaren 24an Ikastolan egindako Batzar Orokorean; eta eraikin berriaren finantzazio arazo larriak kontutan hartuta, beste auke-rarik gabe, sare publikoan integratza hobetsi zen.

1993ko uztailean, Txingudi Ikastolak, Hezkuntza Saileko Donostiarra Ordezkariatzan eskola publiko sarean sartzeko eskaera formalak egin zuen.

Ikastola publifikatu zen eta Euskal Eskola Publikoaren sarean integratzen (otsailaren 8ko 80/94 dekretua).

Txingudi Ikastolako Guraso Elkartea sortu zen 1994/06/13

Txingudi Ikastola publifikatu ondoren, Guraso Elkartearen partaidetza eta dirulaguntza oso garrantzitsuak izan dira Ikastolan ohikoa zen lan dinamika jarraitzeko.

Ikastolako familiak Guraso Elkartearen partaideak dira eta ordaintzen duten kuotaz finantzatu dira Ikastolako Hezkuntza Proiektua hobeto garatzeko hainbat egitasmo: testiliburuak, eskola materiala, biltegiaren kudeaketa, informatikako ikasgelak, instalazioen egokitzapena eta mantenua, Euskararen normalkuntzarako programak, eskola kirolaren sustapena, Jaitzubia Aldizkaria, Gurasoen Eskola...



# V. ERAIKINAK





kasleriaren kopurua handituz zihuan eta funtzionamendurako beharrak ere. Horrela, urtero lan handia egin behar zen tokiak bilatzen eta ikasgelak atontzen. Ikastolako gurasoek eta irakasleek auzolanean egiten zituzten mantenuko lanak eta garbiketak.

Ikasgelen dispersioak (La Salle, El Pilar, San Jose Ikastetxea, Oargi, Egi-luze, Betherram...) eguneroko jardunean zaitasun handiak sortzeaz gain, etorkizunari begira, Ikastolak eskini nahi zuen proiektu sendoren irudia kaltetzen zuen.

Bestalde, 1970ean Spainiako "Ley General de Educación y del Financiamiento de la Reforma Educativa"k Ikastola legeztatzea ahalbidetu zuen; bainan, horretarako baldintzak bete behar ziren.

Hori dela eta, Irunen eta Hondarribian Ikastola osatzen zuen komunitate guztiarentzat garbi zegoen **eraikin egoki bat** behar zela. Hurrengo urteetan, erabaki garrantzitsuak hartu ziren.



## 1970-1972

Irungo Ikastolak eta Hondarribiko Ikastolak elkarrekin eraikin berria egiteko indarrak batu zitzuten, eta bi ikastolek eginiko Asanblada Orokorrera (1970/11/29), terrenoak erosako erabakia hartu zuten Behobia aldean. Baino, jabegoaren arazo legalak eta Hondarribiko gurasoen zalantzak zirela medio, beste auke-rak aztertu ziren. 1971ko maiatzean eginiko Asanbladan, Urbanizadora Jaizkibelek eskaintzen zuen orubea erostea hobetsi zen, Jaitzubiako pareaean.

1972ko ekainean Jaitzubian 20.000m<sup>2</sup> —4.000.000 pezetetan— erosako erabakia hartu zen; eta 1975ean, bigarren orubea erosi zen —16.000m<sup>2</sup>— 5.000.000 pezetetan.

Ikuspegি arkitektonikoez gain, Ikastolako irakasleen eta pedagogian adituen irizpideak eta aholkuak eztabaida gai izan ziren proiektuaren inguruan.

Asanblada Orokorrak (1975/12/14) eraikin berria egitea erabaki zuen.

## 1972- 1975

Miguel Garai eta José Ignacio Lina-zasoro arkitektoei Ikastolako eraikin berria egiteko aurreproiektua esku zitzaien; eta 1975ean, behin-betiko proiektua aurkeztu zuten.

Ikastolako gurasoak ziren Patxi Zapiainek, Juntako lehendakariak, Jo-setxo Ugartek, konstruktoreak, eta Periko Ikardok, aparejadoreak, obren ardura hartu zuten.



1976

Jaitzubiako eraikin berria bukatu gabe zegoela, lehenengo ikasgelak hasi ziren erabiltzen.

Miguel Garaik eta José Ignacio Linazasorok Jaitzubian egindako eraikina Europan gailentzen ari zen Teoria Arrazionala premisen eraginpean proiektatu zuten. Euskal Herrian, 70. hamarkadako kultura eta arkitektura pizkundearen ikono bilakatu zen.

Nazioarteko arkitekturari buruzko al-dizkari eta publikazioetan aipamena egin zitzaiion; halaber, Arkitektura Eskoletako irakasle eta ikasle askok bisitatu zuten Jaitzubiako eraikina.

Hona hemen hainbat publikazio Txingudi Ikastolako eraikinari buruz:

RATIONAL ARCHITECTURE. Brussels 1978

ARCHITECTURE ESPAGNOLE CONTEMPORAINE. Toulouse 1983

CONTROSPAZIO. Roma 1979

YOUNG SPANISH ARCHITECTURE. Madrid 1985

THE HISTORY OF WESTERN ARCHITECTURE

20TH-CENTURY ARCHITECTURE. David J.Warkin. British Encyclopedia

TXINGUDI IKASTOLA. Arquitectura racional. Olatz Ocerin. Luis de Uralta Kultur Taldea 2013



1990-1993

Oinarrizko Hezkuntza (1990eko HSOLO/LOGSE) 14 urtetik 16 urterra luzatu zenean, Asanbladak erabaki zuen Jaitzubian HHko eta BHko eraikinak egitea. Proiektu berri horretan sartzeko arrazoia, besteren artean, honakoak ziren: ordura arte Irungo leku ezberdinetan berríatutik zeuden ikasle eta irakasle guztiak, Jaitzubian biltzea, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako (DBH 12-16 urte) eraikina egitea. Ikastolaren borondatea baizen oinarrizko hezkuntza osoa (6-16 urte) Txingudi Ikastolan eskaintza.

Jaitzubiako lehenengo eraikinaren diseinu arkitektonikoa berezia zen, berriro ere, proiektua Garairi eman zitzzion, eta Barea arkitekoak ere kolaboratu zuen.

1992an, Bigarren Hezkuntzako eraikina bukatu gabe zegoela, ikasgela batzuk erabiltzen hasi ziren, eta 1994. ikasturtean Haur Hezkuntzako eraikina estreinatu zen.

Obraren promotorearen lanak eta gremioen koordinazioaren ardura, Ikastolako kideek hartu zituzten. Fer

nando Babaze —Ikastolako gerentea— izan zen proiektu berriari aurre egin ziona, Markos Amundarain zuzendariaren eta Koldo Alberdi Juntako lehendakariaren laguntzarekin.

Urteak pasa hala, eraikinek izan dituzten egokitzapenak eta birmoldaketak asko izan dira, hezkuntzaren beharrak horrela eraginda.

Mantenuzko lanak ez ezik (teilatuak, leihoa, margotzeak...) espazio berriak ere sortu dira.





- Sorreraren testuingura
- Ikastolen mugimendua eta Hezkuntza Sistema
- Txingudi Ikastolaren Proiektua gizarteratzea

# VI. IKASTOLAREN DIMENTSIO SOZIALA





## 1. Sorreraren testuingurua

Txingudi Ikastolaren sorrera eta bilakaera bere garaian eta testuinguruaren kokatu behar dira. Horrela, hobeto uler daiteke gizartean izan zuen harrera.

Francoren diktaduraren errepresioak eta zentsurak Euska Herriko gizartea gogorki kolpatu zuten.

Diktadurak, euskal egitura sozialak eta ekonomiko propioak desegin zituen; ikastolen, euskararen eta euskal kulturaren kontrako pertsekuzio sistematikoa zuen helburu.

60. hamarkadan, euskararen eta kulturaren galera itzul ezinezko puntuira iristen ari zen. Halako jazarpenaren ondorio dira: euskal hiztun askoren autoestimu galera, erdarari lotzeko joera...

Euskal identitatearen oinarriak desagertzen ari zirela gero eta nabarmenagoa zen. Egoerari aurre egiteko, erdi klandestinitatean, sortu ziren mota askotariko elkartea eta lan-taldeak.

Arestian esan den bezala, testuinguru horretan kokatu behar da gerra osteko ikastolen sorrera.

Euskal Herrian sekulan izandako gertakari kolektiborik handiena bezain garrantzitsua abian jarri zen. Ikastolen fenomenoak hizkuntz guztituak dituzten beste Europako herrietan ez du izan parekorik.



## 2. Ikastolen mugimendua Euskal Hezkuntza Sisteman izandako eragina

Euskal Eskola Publikoa izateko bo-kazioarekin sortu ziren ikastolak, eta honako printzipioetan oinarritu ziren: herritik herrirako sortutako es-kola, euskara eta euskal kultura be-rreskuratzeko eta garatzeko; eskola aurrerakoia, kalitatezkoa eta demo-kratikoa.

Gaur egun dugun Euskal Hezkun-tza Sistemaren hobekuntzan, Euskal Herriko Ikastolen proiektuaren era-gina zalantzarak gabekoa da. 1993. urteko Euskal Eskola Publikoaren Legean jasoak diren hainbat prin-tzipio oinarriak izan ziren hasieratik ikastoletan, hala nola: Euskararen errekuperazioa eta Normalkuntza, Haur Hezkuntzaren integrazioa, Es-kolako autonomia, Hizkuntza lan-tzeko metodologia berriak, Irakas-leen formazioa, Ikastetxeko Proiektu Linguistiko oinarriak, Ikastetxeko Euskara Normalkuntzaren proiek-tuak, Curriculum propioaren garran-tzia, Eskola Komunitatearen har-remanak, Gurasoen partaidetza eta protagonismoa, Eskolaz kanpoko jarduerak, Hezkidetza...

Hezkuntza euskalduna eta berritzai-lea Euskal Herrian sortzen ari ziren ikastola guztien ezaugarriak izan zi-ren, eta horrek eragin zuzena izan zuen beste eskoletan eta Hezkuntza Sistema osoan ere. Eraginaren neu-ria argitze aldera hainbat datu adie-razgarri:

### **Irakasle euskaldunak formatze-ko irakasle eskolak sortu ziren.**

70. hamarkadan, magisteritza eus-karaz ikasi ahal izateko Magisteritza Eskolak zabaltzen joan ziren: Derio-ko Maisu-Maistren Eskola (1975), Eskoriatzako Irakasle Eskola (1976), Donostiako Apeztegiko Magisteritza Eskola (1977).

1978tik 1984ra arte UNEDk ikasto-letako irakasleentzako Plan Berezia antolatu zuen, OHOko irakasle titu-luak emateko helburuarekin.

80. hamarkadan, Magisteritza Es-kola horietatik aterako maisu-mais-trek Oinarrizko Hezkuntzako beste ezagutza eta beste lan egiteko era zuten, Euskal Hezkuntza Sistema osoaren mesedetan.

### **Euskal testuliburuak eta mate-rial didaktikoaren sorrera.**

Irungo Ikastolan ez ezik, ikastola guztieta euskarazko materialak eta testuak behar ziren. Andereñoek lan handia egin zuten baliabideak sor-tzen eta egokitzen.

Egoera hobetzeko eta premiak ase-tzeko ikas materialgintzarako lan tal-deak osatu ziren.

Hastapenetan, izugarrizko ahalegi-na egin zuten testu eta material egi-leek. Ildo metodologiko berritzaileak sortzea ez ezik, euskararen norma-lizaziorako bideak zabaldu zituzten. Eskola hizkuntza eraikitzen joan zi-ren eta euskara batuaren aldeko apustua egin zuten.

**1968an**, Gordailu Taldea sortu zen. 1974an, Saioka proiektua abian jarri zen. Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (6-14 urte) arlo guzientzat testu-liburuak eta material osagarria egin zituzten.

Urte haietan euskal kulturaren he-dapenerako bi argitaletxe sortu zi-ren: 1975ean Elkar argitaletxea eta 1976an Erein argitaletxea. Biak hala biak, euskal kultura sustatzeko eta bultzatzeko xedearekin ekin zioten bere bideari, eta derrigorrezko hez-kuntzara zuzenduriko eskola mate-rialia argitaratzea hartu zuten bere baitan.

Euskaraz ikasten ari ziren ikasleen kopurua ugaritzen ari zen heinean –1980-81. ikasturtean Euskal Herriean 243 ikastola eta 65.273 ikasle zeuden— euskarazko testu libu-gintzak indarra hartu zuen, eta Eus-kal Herrikoak ez ziren argitaletxeak ere hasi ziren euskarara itzultzen haien testuliburuak.



### 3. Txingudi Ikastolaren Proiektua gizarteratzearen oinarriak

- Gizartearen onarpena izatea
- Euskara eta euskal kulturaren erreferentea izatea
- Euskararen errekuperazioan eta Normalkuntzan aitzindaritza hartzea
- Euskara eta Euskal kultura sustatzeko eragile sozialak sortzea
- Eskolaz kanpoko jarduerak presztatzea
- Kilometroak 88 antolatzea
- Gizartearen presente egoteko borondatea sustatzea



#### Gizartearen onarpena

1962an, Irungo Ikastolaren lehen oinarriak jarri zituzten gurasoen eta haien ondorengoen helburua proiektua gizarteratzea eta zabaltzea izan zen. Antolatzen ari zen Ikastola ez zen haien seme-alabentzat soilik, herritar guztientzat aukera izatea nahi zuten. Eta zaitasunez beteriko bideari ekin zioten.



Haien mezua ongi ulertua izan zen eta lehenengo momentutik Ikastolaren proiektua arrakastatsua izan zen. Irungo Ikastolan, ondoren Txin-gudi Ikastola izena hartuko zuena, 1962tik 2012ra doazen 50 urte hauetan, 6.000 ikaslek egin dituzte Oinarrizko Ikasketak. Esaldi batean laburzen den ahalegin izugarri horrek zaitasunez beteriko bidea egin zuen: prejuicioak, debekuak, uka-zioa, oztopo legalak... Baina, horien guztien gainetik familien, irakasleen eta herritarren borondate irmoez,

pausoza-pauso gauzatzu joan zen hasierako ametsa.

Bakoitzak ahal zuen esparruan laguntzen zuen: dirulaguntza ematen, ikasgelak konpontzen eta atontzen, materiala eskuratzeko, ezagutza teknikoa eta aholkularitza eskaintzen... Auzolanean egiten ziren gauza asko.

Laguntza beharra izugarrizko ahots-goragailua izan zen; Ikastolako jendea leku guztietan zegoen: udal-tecan dirua eskatzen, herriko eta

auzko festetan tabernak antolatzen, kantaldiak egiten, dantza ikuskizunak ematen... Aktibitateen ugaritasunak protagonismo eta proiektio sozial handia eman zien Ikastolari eta bere jendeari.

## Euskara eta euskal kulturaren erreferentea

Bere sorerratik, Irungo Ikastola euskara eta euskal kulturaren erreferente bihurtu zen herriarentzat. Oraindik ere, emozio handiz oroitzen da Irunen, 1963an, Ikastolako ikasleek emandako lehen jaialdia, haurrak euskaraz abesten entzutea zirrarragaria izan baitzen.

Irungo herrian hizkuntza eta kultura plazaratzeko, euskaren presentzia ikastolatik haratago eraman nahi zen. Hori lortze aldera, gurasoen eta andereñoen ahalegina handia izan zen. Ikasleentzat mota guztietako jarduera osagarriak, ibilaldiak, kanpaldiak eta eskolaz kanpoko jarduerak programatzen ziren. Halaber, kantaldiak, antzerkiak, koruak, azokak... eratu ziren kaleko giroa euskal kulturaz blaitzeko.

Gaur egun arruntak diren egoerak eta erabakiak, 60. eta 70. hamarkadan oso esanguratsuak ziren, eta dena beharrezkoa zen euskaren presentzia sustatzeko.

Ondorengo bi adibideak argigarriak gerta daitezke orduko egoeraz jabetzeko:

Neska-mutilen euskal izenak asko orokortu ziren. Ikastolara zetozten haur gehienek izenak euskal izenak ziren.

Ikastolako gurasoek eskaturik, 1967an egin zen Irunen Lehen Jau-nartzea euskaraz. Haurrentzat katekesia ere, euskaraz antolatu zuten.

## Euskararen errekuperazioa eta Normalkuntza alorrean

Irungo Txingudi Ikastolak egindako ekarpen esanguratsu batzuk azaldu nahi ditugu:

Euskal Herrian antolatu zen eskola eredu berriak gizarte osoari eragin zion, eta Eusko Jaurlaritzak 1983an Elebitasun Dekretua onartu zuen. Horrela, Euskal Hezkuntza Sistema ez unibertsitarioan euskara eta gaztelararen erabilera arautzeko A, B eta D hizkuntza ereduak sortu zituen.

Ikastoletan ordura arte euskarari ematen zitzaien trataera, eskolako hizkuntza izatearena alegia, Dekretuko D ereduak jaso zuen.

Irungo Ikastolako eguneroko jardunak D ereduaren arautzen zenari erantzuten zion.

Baina, oso bestelakoa zen Irungo beste ikastetxeen egoera. Zentzu horretan, argigarriak dira SIADECO enpresak Irungo Udala-rentzat 1984an egindako ikerketa soziolinguistikoaren emaitzak.

Azterketa horren arabera, 1984an Irunen Haurtzaindegitik BUP-COUra 426 ikasgela zeuden, horietarik % 83,4 A ereduaren ari ziren, % 2,8 B ereduaren, % 13,6 D ereduaren eta % 0,2 ziren euskararik ematen ez zuenak.

Urte berean Irunen, Haur Hezkuntzan eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean, D ereduaren ari zen ikastetxe bakarra Txingudi Ikastola zen —58 ikasgela eta 1.355 ikasle—. Batxilergoan berriz, Irungo Institutuan D ereduko 4 ikasgela zeuden, ikasle gehienak Ikastolako ikasle ohiak ziren.

Azken datu horri dagokionez, az-pimarratzeko da Txingudi Ikastolaren borondatea euskaren erabilera hedatzeko hezkuntza maila ezberdinatan. Nahi hori lortze aldera, 1978an gurasoen artean planteatu zen: OHOko ikasketak ez ezik, batxilergoarenak ere Ikastolan egitea. Baina Asanbladak argi iku-si zuen ikasle euskaldunaz hornitu behar zirela Oinarrizko Hezkuntzatik haratago zeuden ikasteko aukerak, alegia, Institutuak eta Lanbide Heziketako Eskolak. Delako erabakiak ahalbidetu zuen Irungo Institutuan batxilergoa euskaraz ikasiko zuen lehenengo taldea eratzea 1979an.

Bide luzea egin da urte hauetan Euskal Hezkuntza Sistema euskalduntzeko. 1993an Euskal Eskola Publikoko Legeak A, B, D hizkuntza ereduak irakaskuntza sistema osoan ezarri zituen.

2013/14 ikasturtean, Irungo ikastetxe publikoek nahiz itunpekoek (batek izan ezik) 2 eta 3 urteko ikasgela guztiak D ereduakoak izango dituzte.

Euskara eta Euskal kultura sustatzeko eragile sozialen sorrera

### **BIDASOA EUSKAL KULTUR TALDEA, EKT**

1974an, Ikastolako guraso talde batuk Bidasoak Euskal Kultur Taldea EKT sortu zuen Irunen euskal giroa eta euskal kultura sustatzeko helburuarekin. Talde horrek beregain hartu zuen Ikastolari laguntzeko prestatu beharreko ekimen guztien antolaketa. Altzukaitz eraikinean ezarri zuten bere egoitza, eta lanean hasi ziren.

Bidasoako EKTk egindako jarduerak konta ezinak dira: jaialdien antolaketa, pailazoaren emanaldiak, antzerkiak, txosnak festetan, Olentzero koruak, Santa Ageda koruak, Kaldereroak...

EKTko sustatzaileen artean "Ikastolaren alde" zen lelo errepikatua. Beti prest zeuden lana egite-

ko eta laguntzeko, auzolanean. 1977an San Martzialeko festetan jarritako txoznan, garaiko 1.000.000 pezeta jaso ziren Ikastolak eratuta zeukan beka sistemari laguntzeko.

### **IKASTOLA TXIKI**

Baina, Bidasoako EKTk sustatutako ekimenik garrantzitsuena, dudarik gabe, IKASTOLA TXIKI sortzea izan zen.

1978an, Ikastolako Batzordeak mahai-gaineratu zuen euskara ikaste goiztiarraren beharra. Ikastolara zetozten 3 urteko haur askok ez zekiten euskara, eta hizkuntza hobeto ikasten laguntzeko haurtzaindegia euskaraz eratzearen beharra azaldu zuten. Bidasoako EKTk erronka hartu zuen, eta Patxi Goñi arduratu zen proiektua gauzatzearaz. Lehenengo bi gelak Altzukaitz eraikinean antolatu ziren 1979ko urtarrilean, 2 andereño eta 30 ikaslerekin. Zaitasunak ez ziren nolanahikoak: ikasgelek aurkitu eta atondu, andereñoak bilatu, garrailo antolatu.... Guraso haien ondo ikasitakoak ziren eta aurrekoek era-kutsitako bideari jarraitu zioten. Ikastola Txiki lehenengo haurtzaindegia euskaraz izan zen Irunen, eta arrakasta berehalakoa izan zen. Sortu zeneko hurrengo ikasturtean, 1980an, andereño eta haurren ko-

puria bikoitzu egin zen. Hurrengo urteetan, gelak Irungo auzoetan zabaldu ziren: Altzukaitzen, Anakan, Landetxan, Mendibilen, Pinarren, Salisen, eta 54. Poligonoan.

Ikastola Txikik 200 haur eta 12 andereño finko eta 2 behin-behineko izan zituen.

Ikastola Txikiren eta Txingudi Ikastolaren artean kolaborazio handia egon zen. Ikastola Txikin egondako ikasle gehienak Txingudi Ikastolan matrikulatzen ziren; Ikastolak berriz, eskola materialaz hornitzen zituen haurtzaindegiko gelak.

1993an, Bidasoako EKTk utzi zuen lan horren ardura eta Ikastola Txikiko andereñoek hezkuntza kooperatiba bat eratu zuten.



## Eskolaz kanpoko jarduerak

Txingudi Ikastolako proiektuaren sozializaziorako beste bide garrantzitsu bat eskolaz kanpoko jarduerena izan zen. Euskal kultura eta kirolaren praktika izan ziren jarduerak antolatzeko orduan gai nagusiak; beti ere, ikasleen esperientziak aberasteko eta zaletasunak sustatzeko helburuarekin.

KEMEN DANTZA TALDEA da neska-mutilen zaletasunak eta eskolaz kanpoko jarduerak euskal kulturarekin uztartzeko adibidea.


1973an, hainbat gurasoen lanari esker, KEMEN DANTZA TALDEA sortu zen. Guztiz aipagarria da Pili Murruak Arantxa Olaizolarengagatik egindako lana. Ehunka haurrek eta gaztek ikasi dituzte euskal dantzak. Dantzak ez ezik euskal musika trasnakin ere lantzen dituzte.

KEMEN DANTZA TALDEAk mundu osora eraman ditu euskal dantzak eta folklorea: Japoniara, Alemania... eta nazioarteko sariak irabazi ditu.

Azkeneko urteetan, gaztetxoek ADAXKA Txingudi Ikastolako euskal dantza taldean ari dira eta KEMEN taldearen harrobi dira.

Adaxka dantza taldeak AMAIA Irungo Antzokian urtero emanaldiak egiten ditu.

Beste ekimen arrakastatsua Txorimalo Trikitilari Taldearena izan da.



Talde sortu zenetik Txingudi Ikastolako ehunka ikaslek ikasi dute bertan panderoa eta trikitixa jotzen.

Ikastola eta Irungo kirol taldeen artean harreman estuak egon dira betidanik. Azpimarratu behar da, ordea, Atletismo alorrean egindako lana.

Joseba Sarriegik eta Julen Olamusk —Ikastolako Heziketa Fisikoko



irakasleek— sustatu zuten Txingudi Ikastolan atletismoaren praktika eta zaletasuna. Bidasoa Atletiko Taldearekin zuten harremanei esker, Ikastolako ehunka ikaslek BAT taldean egin dute kirol hori, eta Bidasoa eskuadreko atletismoa hornitu dute.

1979. urtez gerotik, Gipuzkoako kross denboraldiari hasiera ematen zaio Irungo Krossarekin, eta urtero Txingudi Ikastolako kirol-pistetan egiten da.

Aipatzeko da, 34 urtez hutsik egin gabe, gurasoek egiten duten lana Atletismo festa horren antolaketan.

## KILOMETROAK 88

**1988an, Txingudi Ikastolak**  
**1988ko urriaren 2an**  
**KILOMETROAK 88** antolatu zituen.

Irungo hirian sekulan bizi izan den euskararen aldeko festarik jendetsuena eta arrakastatsuena.

KILOMETROAK 88ko antolatzai-leek MUGARIK EZ, EUSKARARI lema gisa hartuta helburu bi izan zituzten: Irungo herria euskal giroan murgiltzea, eta dirua biltzea Txingudi Ikastolarako ez ezik, Iparraldeko eta Nafarroako Ikastolentzat ere.

Berriro ere auzolanak, eskuzabaltsunak eta euskara eta Ikastolareki-ko atximenduak posible egin zuten xedea burutzea. Komisio desberdinak antolatu ziren bakoitza bere arduradunarekin. Horrela: Trafikoa: J.L. Serrano, Publizitatea: J.M. Alberdi, Hamabostaldi Kulturala: Mai-te Berazadi, Haurrentzako ekintzak: M.J. Hernandez, Zerbitzuak: M.A. Sanchez, Zirkuitoa: F.J. Sanchez, Sarrerak: Mila Oiartzabal eta Martxel Telletxea, Garbiketa: Benantxo Etxeberria, Megafonia: Salbortxo Gonzalez eta Ekonomia: Fernando Babaze. Haunek denak gehi Markos Amundain koordinatzaile bezala eta Karmele Pocino idazkari lanetan osatu zuen antolaketaren bizkarrezurra.

Irungo Elkarte gehienek zabaldu zituzten bere egoitzak laguntzeko; txaranga, bertsolari, eta parte har-



tzaileei bazkaria emateko edo antolazaleei gauzak errazteko.

Irungo eta Hondarribiko denda eta enpresa gehienek laguntza ekonomikoa eman zuten eta beste batzuk bestelakoak. Adibidez, Irungo **BRASIL** gozodendak pastel berria asmatu zuen **KILOMETROAK** ize-narekin. Irungo Irratizaleek emisora berria eratu zuten munduko euskaldunekin hitz egiteko. L.M. Alvarezek eta Pako Ortizek gertatutako guztirekin bideo bat osatu zuten

Mikel Garikoitzek K88 abestia asmatu zuen, Jexux M<sup>a</sup> Mendizabalen hitzekin.

Aipamen berezia merezzi du egun handia girotzeko, irailaren 16tik urriaren

1era antolatutako **HAMABOSTALDI KULTURALAK** Era askotako espektakuluak eta emanaldiak eskaini ziren, besteak beste: Donostia-Azkoitia herri arteko pilota partida, Trinketeko partidak, Real Union-Real Sociedad futbol partida, Ametsa Abesbatzaren kontzertua, Donostiako Kontserbatorioko orkestra eta Eskifaia abesbatzaren kontzertua Pasionistetan, Tomas Aragues mai-xuaren gidaritzapean. Bertso Jaialdia: Amuriza, Mañu Korta, Peñagari-kano Euskitze eta Gorrotxategirekin, Joxerra Gartziak zuzenduta, Avenida zineman. Bidasoa-Arrate eskubaloi partida, Lluis Llach eta Mikel Laboa, "Agur eire Agur" antzerkia Ttantaka taldearen eskutik eta Kortatua eta Ruper Ordorikaren kontzertua Kortatua taldearen agurra izanik, hiruk



Artalekun. San Martzialera moto karrera, Irungo Lehenengo Hiri Milia Kolon Pasealekuaren, Akelarre taldearen jaialdia Urdanibia plazan e.a.

Euskara Irundik barreiatzea helburua zenez, zirkuitua Irungo kaleetan zehar antolatu zen. Horrek eman zion festari ukitu berezia eta arrakasta itzela. 100.000tik gorako lagunek parte hartu zuten **KILOMETROAK 88** festa erraldoian eta 31.523.853 pezeta jaso ziren.

Zirkuituaren irekiera Irungo Bandak "Agur Jaunak" joaz egin zen eta lehenengo itzulia: J.A. Arditza Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, Imanol Murua Gipuzkoako Aldundiako Presidenteak, Buen Lacambra Irungo Alkateak, Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kulturako Sailburuak, M. Carmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako arduradunak, J.A. Campos Ikastolen Elkarteko Presidenteak, Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako Lehendakari ohiak eta Txingudi Ikastolako antolatzaileek osatutako taldeak eman zuten.

Irungo Udalak, plenoan hartutako akordioan, **KILOMETROAK 88** antolatzaileak publikoki zoriontza erabaki zuen lorturiko arrakastarengatik, eta beste hainbeste egin zuen ikastolen Elkarteak.

Ikustekoak ziren egunaren bukaeran Irundar euskaldunen aurpegiak. Poza eta harrotasuna islatzen zuten egindako lanagarentik eta lortutako arrakastarengatik.



## Gizartean presente egoteko borondatea

Euskara, euskal kultura eta Ikastola-k Proiektua Irungo herrian plazartearen bidean, hainbat ekimen jarri izan ziren martxan. Hona hemen adibide batzuk:

Bertsolaritzak —euskal kulturaren adierazlerik berezkoena— ere izan zuen bere tarta Txingudi Ikastolan. 1990. urtean hasita Ikastolak **BERTSO JAIALDIA** antolatu zuen. Jaialdia bost urte jarraian egin zen eta Euskal Herriko bertsolaririk entzutetsuenek parte hartu zuten: Andoni Egaña, Iñaki Murua, Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Lazkao Txiki, Mañukorta, Euskitze, Lazkano, Peñagarikano, Iñaki Murua.... Jendearen erantzuna handia izan zen eta arrakasta erabatekoa. Aretoak mukuraino bete ziren.

Irungo Ser Irratiaren eta Txingudi Ikastolaren arteko elkarlanaz “El tintero” asteroko irratia saioa egin zen (1993-1995). Irrati saioan hezkuntzako gaiak jorratzen ziren; eta bertan Ikastolako zuzendariak, irakasleek eta gurasoek parte hartzen zuten.

**IKASTOLA EGUNA** (1997) Txingudi Ikastolako komunitatearentzat egun handia izateko xedarekin sortu zen. Ekainaren lehendabiziko larunbatean, ikasturtea bukatzean dagoela, ikasleak, familiak, irakasleak, langileak eta lagunak haurrek prestaturiko ikuskizunaz eta lanaz gozatzeko biltzen dira. Jolasak, txarangak, dantzaldiak, kantuak, baz

karia, omenaldiak... osatzen dute egitaraua, eta dena umore onean.

Urtez urte arrakasta osoz ospatzen den festa honek Txingudi Ikastola izan dela, badela eta izango dela sentitzeko aukera eskaintzen du.

1999/2000 ikasturtean beste komunikatzeko bidea zabaldu zen Ikastolan: **JAIZUBIA ALDIZKARIA**, Ikastolan egiten zenaren berri emateko asmoarekin sortu zen.

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta ikasleek egiten dute, urtean bi ale ateratzen dira, eta **GURASO ELKARTEAK** finantzatzen du.

2005ean, Irungo Txingudi Ikastola HLHIKO eta Txingudi BHIKO web orriak zabaldu ziren. Hurrengoa Txingudi Ikastolako Guraso Elkartearena izan zen. Informazioa eskaintzeaz gain, komunitate osoaren harremana sustatzeko tresna izateko helburuarekin jarduten dute, hauen harira **blogak** sortu ziren.





- Sortze eta garatze urteak, 1962-1974
- Osatze eta sendotze urteak, 1974-1994
- Eskola Publiko bihurtzea, 1994...

# VII. HEZKUNTZA PROIEKTUA



**O**raingo ikuspegitik eta 50 urte pasa ondoren, galdeztzen bada nondik sortu ziren kolektibo haren indarra eta kemeña proiektua garatzeko, erantzuna dago, neurri handian, talde haren baloreetan eta tasunetan.

Irizpide propioak izatea, asmoak martxan jartzeko iniziatiiba izatea, bere herria eta bere identitatea sentitzeko era, ikastola egiteko borondate irmoa; bere herriko hizkuntza eta kultura sentitzea, biziak eta maitatzea; hartutako konpromisoei tinko eustea, eskuzabaltsuna, solidaritatea, etorkizuna irudikatzea, egiten ahal zutela sinestea, garaiko hezkuntza sistemari alternatiba bat bilatzea.... Hori dena

kontuan hartuta ulertzen ahal da urte haietako zaitasunak gainditzeko izandako determinazioa.

Bereziki azpimarragarria da andeñoen eta maixuen konpromisua, partaidetza eta Ikastolaren proiektuarekiko atxikimendua. Emakume eta gizon haientzat ikasgelen eta beste instalazioen baldintza prekarioak, orotariko gabeziak eta lan baldintza eskasak ez ziren oztopo izan euskararen eta gure herriko hezkuntzaren alde ilusioz eta kemenez lan egiteko.

Aipaturiko baloreek eta kualitateek itzal handia izan dute Hezkuntza Proiektuan.

Txingudi Ikastolako Hezkuntza Proiettua nola egiten joan den azaltzeko honako epeak hartu dira kontuan:

- I. 1962-1974  
Sortze eta garatze urteak
- II. 1974-1994  
Hezkuntza Proiektuaren osatze eta sendotze urteak
- III. 1994...  
Euskal Eskola Publiko sarean sartzeko hautua, eta egoera berriari egokitzea.

## I. 1962-1974 sortze eta garatze urteak

Hasierako 12 urte haietan, **egoera eta une erabakikorrak** bizi izan ziren Hezkuntza Proiektuaren garapenerako, eta haien kudeaketa zuzenak Ikastolari egonkortasuna eta segurtasuna eman zizkion.

**Ikastolaren proiektuarekiko gizartearen erantzuna eta jarrera:** 1962/1963 ikasturtean 22 ikaslek eta bi andereñok osatu zuten lehenengo taldea. Hurrengo 12 urteetan, ehunka familia berri sartu ziren proiektuarekin identifikaturik eta bere egitean implikatzeko prest. Hori izan zen Hezkuntza Proiettua eraikitzeko motorra eta erregaaia.

1974an, 748 ikaslek, 30 irakaslek eta 26 gelek osatzen zuten Ikastola.

**Ikastola legeztatzea** (1970): Espainian Hezkuntza Lege Orokorra onartu zenean, Ikastola askok legalizazioa bidea hartu zuten. Irungo eta Hondarribiko ikastolek indarrak batu zituzten legalizazioaren baldintzak betetzeko. Bete beharreko arauak askotarikoak izan ziren: legalak, administratiboak, ikastolaren egitura-keta osatu behar zen...



## **Ikastolak Oinarrizko Hezkuntza**

**Orokorreko eskola** izendapena lortzea (1972): Ikasleek, Haur Hezkuntzatik OHO bukatu arte (3-14 urte), Ikastolan egiten ahal zituzten ikasketak. Horrela, Hezkuntza Proiekta garatzen eta osatzen joan zen ikas mailak burutzen ziren araberak.

**Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak egiteko 8 ikasmailak osatzea:** 1974an, Irungo eta Honderribiko Ikastolatik lehenengo promozioa atera zen oinarrizko ikasketak eginik.

Hezkuntza Proiekta eraikitzearen ibilbidean, honakoak izan ziren urte haitetako erronka nagusiak besteren artean:

1- Hezkuntza eredu eta estilo pedagogiko berriak eratu.

2- Proiekta eraitzeko eta gauatzeko andereño eta maisuak izatea eta haien formakuntza ahalbidetzea.

3- Ikasleek ikasketak gazteleraaz jarritu beharra, Oinarrizko Hezkuntza euskaraz egin arren.

1. Hezkuntza eredu eta estilo pedagogiko berriak curriculum propioa erakitzeko

Irungo Ikastolako gurasoek, andereñoek eta maisuek argi zuten hezkuntza sistema ofizialari alternatiba bat eratu beharra zegoela eta beste hezkuntza eredu eta curriculuma antolatu behar zela.

Horrela, hezkuntza eredu berria honako zutabeetan eraikitzen hasi zen:

- **Euskara eskola hizkuntza izatea, euskal kultura berreskrratzea eta garatzea helburu izango zituena**

Garaiko legalitatetik haratago joanez, euskal hizkuntza hartu zuten eskola hizkuntzat. Ikastolako esparru guztiak lehen hizkuntza euskara izatea zen helburu: esparru akademikoan, instituzionalean, kanpo eta barruko harremanetan...

Euskal Herriko hizkuntza, ohiturak, literatura, geografia, natura, historia... ikasgai bihurtu zituzten.

Euskara ikasteko eta lantzeko ahozko hizkuntzaren erabiltzeari eta garatzeari izugarrizko garrantzia ematen zitzzion; eta ahozko tradizioa berreskuratzeko: abestiak, jolasak, bertsoak... sistematikoki lantzen ziren.

## **• Antolakuntza eta estilo pedagogiko eta didaktiko berritzalea izango zuena**

Txingudi Ikastolako curriculuma ez zen sortu aurretik pentsatutako disainu teoriko batetik.

Zer irakatsi, nola irakatsi, eskola baliabide berriak sortu, ordutegia definitu, mota guztiak hezkuntza jarduerak antolatu... egunero-ko jardunaz osatzen joan ziren eta irakasle taldearen egiteko eran txertatzen joan ziren.

Ikastolako curriculuma osatze prozesu luzean gurasoek, andereñoek eta maixuek erabaki asko hartu behar izan zituzten, eta horiek aurrera eraman oso baliabide eskasekin.

Ikaste goiztiarrak zuen garrantzia kontuan hartu zuten, eta euskarra ikasteko eta bere erabilera oihiturak indartzeko Haur Eskolatik hasi ziren proiekta garatzen. Irungo Ikastolan ikasleak 3 urterekin hastea arau bihurtu zuten.

Haur Eskolatik hasita eskolatze mistoa zen; ikas maila guztiak neska-mutilak elkarrekin egoten ziren ikasgeletan, sexu bereizketari gabe. (1970eko Villar Palasiren Legeak altxatu zuen neska-mutilak elkarrekin egotearen debekua, eta 2006ko HELO-LODEk derrigortu zuen klaseak mistoak izatea).



Ikaslearen garapen integrala helburutzat jotzen zen; horretarako, gurasoak eta irakasleak haurren heziketan parte-hartzaleak ziren; eta, familien eta irakasleen arteko koperazio estua sustatu zen.

Eskola demokratikoa eratu zuten, non gurasoen parte hartza Ikastolako orotariko jardueretan eta era-bakietan gauzatzen baitzen.

Hezkuntza komunitateak esanahi osoa zeukan. Ikastolako asanblada organo erabakitzalea zen: gurasoez, irakasleez, langileez eta susta-tzaileezez osaturik.

Andereñoen eta haurren arteko harremanetan ikasleen adierazpen askea sustatzen zen, ikasleen pentsamendu autonomoa eta iniziatiiba indartzeko.

Metodologia aktiboko printzipioetan oinarrituz: ikasleen parte hartza sustatzen zen, manipulazioa indartzen zen, esperientzietan oinarritu-tako egiteko erak funtsezkoak ziren, eta ingurunearen behaketa zuzenak sistematikoki egiten ziren.

Bertako eta hurbileneko naturatik, historiatik, geografiatik eta kulturatik abiatuz orokorrera igarotzeko proze-suak lantzen ziren.

Ulermen gaitasunari garrantzia eman zitzaiion estilo memoriztikoa bazter-tuz.

Gabezia gainditzeko, askotan imajinazioa erabiltzen zuten andereñoen eta maixuek. Mota guztiak mate-

rialia baliatzen zuten; ikasleek etxetik ekartzen zituztenak ere, horretan familiiek asko laguntzen zuten.

Andereñoen aukera berritzaleak asmatu zituzten. Material eta eskola altzarien eskasia zirela eta, ikas-gelaren espazioa ohikoa ez zen eran hasi ziren erabiltzen: ikasleak lurrean esertzen ziren, borobilean. Distribuzio horrek elkarren arteko interakzioa errezen zuen.

Zurezko xaflek, ikasleen belaunen gainean, pupitreak ordezkatu zituzten, lanaren araberako mugikortasuna erraztuz.


Euskarazko testuak oso urriak zirenez, gehienetan sortu edo euskara-tu behar ziren; jakintza gai bakoitzari zegokion hiztegia osatu behar zen; irakatsi nahi zenaren euskarri fisi-koak —lan fitxak, apunteak, marrazkiak...— sortu edo/eta egokitut behar ziren.

Egoera hobetzeko ikastola ezberdi-netako irakasleak elkartu ziren, eta ikas materialgintzarako lan taldeak osatu zituzten: Gordailu taldea 1968, Saioka Proiektua 1974-1984.

Oso lan garrantzitsua egin zuten testu eta material egileek, ildo metodologiko berritzaleak sortu ez ezik, euskararen normalizaziorako bideak ere zabaldu zituztelako.

Eskola hizkuntza sortzen eta osa-tzen joan ziren eta euskara batuaren aldeko apustua egin zuten.

Gogoratu behar da Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun eginiko bileran jarri zituela euskara idatzia batzeko oinarriak.



1975. urtetik aurrera, eskola liburu eta materialaren argitalpena asko areagotu zen —1975ean Elkar argitaletxea eta 1976an Erein argitaletxea sortu ziren hurrenez hurren—. Eskaintza ugaltzeak beste aukerak eta osagarri didaktikoak ekarri zituen eta Txingudi Ikastolako curriculuma osatzen lagundu zuen.



## 2. Proiektua eraikitzeko eta gauzatzeko irakasleak izatea eta haien formakuntza ahalbidetzea

Irakasle tituludunak eta euskaldunak aurkitzea oso zaila zen harik eta magisteritza eskoletan maisu-maistra ikasketak euskaraz egiteko planak eratu ziren arte —1976an Eskoriatzako Irakasle Eskola eta 1977an Donostiako Apeztegiko Magisteritza Eskola sortu ziren hurrenez hurren—.

Ikasleen matrikulazioa urtero asko handitzen zenez, irakasleak behar ziren —1974an 30 irakaslek osatzen zuten Ikastolako klaustroa— eta Ikastolako gurasoek Gipuzkoako Goierriko, Nafarroako mendi aldeko eta inguruko herriko andereño eta irakasle euskaldunak Irun aldera ekartzen saiatzen ziren.

Baziren eskuzabaltasun handia azaldu zuten irakasleak ere. Ikastolan lanean ez aritu arren ikasleen kartillak sinatzen zituzten.

Hizkuntza jakitea ezin besteko bal-dintza zenez, maisu-maistra ikasketak izan gabe ere andereñoak kontratatzen ziren. Haien formazioa ikastaroekin eta praktikarekin osatzen zen. Gipuzkoako ikastolen arteko lankidetzaren bitartez Andereñoen Erresidentzia eratu zen Donostian (1964-1974) eta bertan honako gaiaik lantzen ziren: Euskarra eta literatura, Herriaren ezagutza: historia, geografia, antropologia. Haurraren ezagutza: pedagogia eta didaktika. Elbira Zipitriaren eredu metodologikoa jarraitzen zen.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak antolatuta, Formakuntza Profesionala garatzeko, irakasleentzat udako ikastaroak hasi ziren egiten.

Ikastaroetan Europan lantzen ari ziren psikologia eta pedagogia teoria berriak eta hezkuntza mugimendu aurrerakoen ideak hausnarketa gai ziren: Piageten teoriak, Freineten teknikak, Rosa Sensat Institutoko orientabideak, elebitasunari buruzko teoriak...

Udako ikastaroetara irakasle talde osoa joaten zen; eta ikasturtean zehar ere, Ikastolan bertan nahiz beste ikastoletan antolatutakoetan parte hartzen zuten.

1978tik 1984ra, UNEDk eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak ikastoletan irakasleentzako Plan Berezia antolatu zuten, titulurik gabeko andereñoek OHOKO irakasle titulua lor zezaten. Plan horretan Txingudi Ikastolako hainbat andereñoak maisu-maistra titulua izateko ikasketak egin zituen.



## 3. Ikasleek ikasketak gazteleraz jarraitu beharra Oinarrizko Hezkuntza euskaraz egin arren.

Hasierako urteetan ikasleek 9 urterekin uzten zuten Ikastola. Aurrentzean egin beharreko ikasketak gazteleraz egiten zituzten. Horrek zaitasuna sortzen zien haurrei, nahiz eta Ikastolan gaztelerazko probetarako prestakuntza berezia eskaini.

Ikastola Oinarrizko Hezkuntza Orokreko Ikastetxea izendatu zuteenean (1972), ikasleek euskaraz egin ahal izan zituzten bere ikasketak 14 urte arte. Halere, ondorengo ikasketak —batxilergoa, lanbide heziketa...— gazteleraz egin behar zituzten. Horrek guztiak ahalegin handia eskatzen zien neska-mutilei eta kezka sortzen zien gurasoei

Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren inguruan zalantza asko sortu ziren. Euskal hizkuntzari buruz gizartean zeuden aurreiritziak gainditu behar ziren; eta behin eta berriro, erakutsi behar izaten zen euskarak hezkuntzarako eta kultura transmititzeko ere balio zuela; eta Ikastolan ikasten zuten haurrek gaitasuna zutela bere ikasketak jarraitzen, gazteleraz izan arren.

Ikastolako Batzordeak eta Asanbladak ikasketak euskaraz jarraitu ahal izatearen garrantzia jabeturik, ahalegin guztiak egin zituzten Hondarribiko Institutuan eta Irungo Institutuan batxilergorako euskarazko taldeak osa zitzaten.



## II. 1974-1994: Hezkuntza Proiektuaren osatze eta sendotze urteak

Ikastolan 20 urtez garatu zen Oinarrizko Hezkuntza Orokorra OHO, harrik eta derrigorrezko hezkuntza bi urte luzatu zen arte (HSOLO-LOGSE, 1990).

Urte horietan osatu, garatu eta umotu zen Ikastolako Hezkuntza Proiek-tua.

Txingudi Ikastola bikoiztu egin zen. Irungo eskola populazioaren laurdena baino gehiago bertan ari zen ikasketak egiten. Baieztapen hori berresteko, hona hemen datuak: 1887/1988ko ikasturtean 1.475 neska-mutil ari ziren Txingudi Ikastolan ikasten, 55 ikasgelatan banatuta. Irungo ikasleriaren %32a.

Urteroko hazkunde ikusgarriak espazioa arazo handiak ekari zituen; eta ikasturte hasiera bakoitzean gelak aurkitu, egokitu eta atondu behar ziren. Horrek ahalegin handia eskatzen zuen. Ikasgelen dispersioak hainbat oztopo sortzen zituen funtzionamendurako: familientzat eta ikasleentzat etengabeko joan-etorriak, irakasleen

harremanetarako eta koordinaziorako zaitasunak, ikasgelen eta espazioen konponketak eta haien gastuak...

Bestalde, legalizazioak eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikastetxea izendatzeak ikasgelen eta bestelako espazioen baldintzak finkatzen zituzten.

Arestian esandako arazoek bateztik, eta Ikastolaren proiektuak behar zuen sendotasunaren irudiak bestetik, gurasoak Jaitzubiako lurra erosten (1972) eta eraikina egitera bulztatu zituzten (1974-1976).

Aipaturiko bi elementuek: ikasle kopuruaren hazkuntza jarraituak eta eraikina egiteak, alegia, eman zioten Ikastolari bere proiektua sendotzeko markoa. Txingudi Ikastola Irungo eta Hondarribiko Hezkuntza sisteman, eta gizartean ere, erreferentziazko eskola bihurtu zen.

## MARIJE URANGA

Marije Uranga Arandia 1979an hasi zen Txingudi Ikastolan lan egiten. Ikastolaren lotura ordea, aspalditik zetorkion. Bera eta bere senarra Luis Mari Elosegi, beste gurasoekin batera, Hondarribiko ikastolako sortzaileak izan ziren (1964), eta Irungoekin elkar hartuta Irungo eta Hondarribiko Ikastola eratu eta sustatu zuten. Haien seme-alabek Irungo nahiz Hondarribiko ikastoletan egin zituzten bere oinarrizko ikasketak.

Marije Urangaren ibilbide profesionala Txingudi Ikastolan, 1. mailako OHOKO ikasleekin hasi zen. Ikasketetan laguntha behar zuten bere ikasleek kezkatuta, eta neska-mutilen zaitasunak ulertzeko sentsibilitate berezia izanik, haurrak laguntzeko bide ezberdinak jorratzen hasi zen. 1979an, Bartzelonan psikomotrizitateari buruz ikastaro bat egin ondoren praktika hori biziki interesatu zitzzion, eta bere ikasleekin eguneroko jardunean erabiltzen hasi zen. Espezializatzen joan zen heinean zaitasunak zituzten ikasleen ardura hartu zuen, eta, Ikastolako Orientazio eta Laguntha Taldearen partaidea izan zen.



Marije Uranga Txingudi Ikastolan lanean ari zela, Psikomotrizitate Hezkuntzan espezializatu zen Toulouseko (Okzitania) Nazioarteko Psikomotrizitate Eskolan Bernard Autourier irakasle ospetsuarekin, eta Madrilgo (Espainia) Psikomotrizitate Eskolan jarraitu zuen bere ezaguera sorkonteren.

Familia Terapeuta izateko ikasketak egin zituen eta horretan espezializatu zen. Euskal Herriko Familia Terapiako Eskolako kidea izan da, erretiroa hartu duen arte.

Profesiorekiko eta haurrekiko bokazioak eraman zuen urteetan lan eskerga egitera.

Txingudi Ikastolan ez ezik Euskal Herriko hainbat ikastetxetako eta institututako aholkularia izan da, irakasleen formatzaile, Guraso Eskolen ikastaroen antolatzale, irakasle eta hizlari nekaezina.

Bere ibilbide profesionala zehaztasunez adierazteak luze joko luke, baina ezin aipatu gabe utzi Txingudi Ikastolako Hezkuntza Proiektuan bere eragina eta ekarpena:

## 1. Psikomotrizitate praktikaren beharraz sentsibilizatzea eta Ikastolako plangintzan txertatzea

Marije Uranga, 1980an, Txingudi Ikastolan Psikomotrizitate Erlazionalaren praktika egiten hasi zen. Orduko eskola sisteman oso berria zen psikomotrizitate kontzeptua eta are gehiago bere praktika eskola plangintzan txertatua izatea. Zentzu horretan esan daiteke M<sup>a</sup> Jesus Uranga pioneroa izan zela.

Ikasleekin egindako lanaren lekukotasunak erakarri zituen Ikastolako lankideak eta zuzendaritza. Eta pixkanaka Txingudi Ikastolan psikomotrizitatea lantzeko plana egin eta azpiegitura antolatu zen: gelak, materiala, ordeutegiak, ikasleen taldeak, tutore eta irakasleen formazioa...

Psikomotrizitatearen planaren arabera, Haur Hezkuntzako eta OHKO 1. eta 2. mailako ikasle guztiak egiten hasi ziren.

Psikomotrizitatearen hezkuntza Txingudi Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren ezaugarrietariko bat izaten hasi zen eta urteekin oinarrietariko bat bihurtu.

## 2. Ikuspegi sistemikoaren argitan haurrak ulertzeari

Ikasleak ulertzeko eta laguntzeko haurra bera eta bere ingurua (familia, irakaslek, ikaskideak...) aztertzearen eta ulertzeari beharra ikustarazi zuen.

Bi izan ziren nagusiki bere ekarpenak arlo honetan:

- Ikaslearen egoera aztertzeko beste ikuspegia eta metodologia eskaini zizkion irakasleriari.
- Tutorea eta familien arteko harremanak eraikitzeko beste erak landu zituen.

## 3. Ikastolako irakasleriaren formazioari ekarpena

Irakasleen formazioari dagokionez bi ekarri nagusi azpimarra daitezke:

- Psikomotrizitatearen alorrean:  
Psikomotrizitate plana 3 urtetik 7 urterako ikasleentzat eraiki zen. Ikasle guztiak egiten zuten psikomotrizitatea. Heziketa hori tutorearen funtzioa zenez, irakasleen formaziorako plana eratu eta aurrera eraman zuen. Psikomotrizitate erlazionalaren oinarrietan eta egiteko eretan irakaslek trebatzea zen plan horren helburu nagusia.
- Tutore eta familien arteko harremanetan:  
Ikasleen beharrei egoki erantzuteko tutorearen eta familiaren arteko erlazioei berebiziko garrantzia ematen zien Marije Urangak. Harreman horien garrantzia jabetzeko eta egoki bideratzeko formazio saioak eratu ziren Ikastolan hainbat urtetan, bere ardurapean.

Lantzen ziren gaiak ikasgeletan gertatzen ziren egoeretan oinarritzen ziren. Egoerak ikuspuntu ezberdin netatik aztertzen ziren irakasle taldeak esku-hartze irizpideak adostu eta finkatu zitzan; eta horrela, ikastolako profesional taldearen egiteko era koherentea sustatu.

Guraso eta tutoreen arteko bilerak prestatzeko eta egiteko lanabesak asmatu edo/eta egokitu zituen, hala nola: bileretarako protokoloak eta gidoiak, akordioak egiteko erak, konpromisoetara heltzeko prozedura, haien jarraipena...

#### **4. Ikasleekiko eta familiekiko harremana egiteko estilo berezia**

Familia terapeuta formazioa eta gurasoekiko nahiz ikasleekiko harremanetarako sena baliatu zituen haurrek eta familiak abegitzeko.

Bere sustapenez eta laguntzaz hainbat prozedura martxan jarri ziren; eta ikastolako egiteko eran integratu ziren, hala nola:

- Ikasleentzat Sarrera Plana: 90. hamarkada hasieran, 3 urteko haurrei ikastolara sarrera errazteko, plan bat disenatu zuen. Egitasmo horrekin ikasleei sarrera errazteaz gain: andereño, irakasle lagunzaile eta gurasoen arteko harremanak hasieratik ongi bideratzea lortu nahi zen.
- Gurasoentzat formazioa saioak: ikastolara sartu berriak ziren gurasoen formaziorako plana eratu zuen. Haurren garapenaren prozesuaren ezagutzan sa-kontzea, familiak eta ikastolaren arteko hezkuntza iriztiaz adostea, Haur Hezkuntzan egiten zen lanaren oinariak gurasoekin partekatzea... ziren ekimen horren helburua.

Formazio saioak adin ezberdinak ikasleen gurasoentzat ere egin zituen, sei urtetik nerabezarrora. Honakoak

ziren lan saioen helburuak: haurren garapenaren une ezberdinak ezagutu; eta horren arabera, seme-alabak ulertzeko eta laguntzeko erak eta prozedurak eskaini.

- Gurasoen artean psikomotrizitateari buruzko dibulgazioa: ikaslearen garapenerako Praktikaren garrantzia ulertzeko eta aita-amen implikazioa lortzeko hitzaldiak ematen zituen.

#### **5. Orientazio eta laguntza taldearen metodologia ikasleen aniztasuna tratatzeko**

Ikasleen zaitasunak tratatzeko eta bideratzeko Marije Urangaren ekarpena azpimarragarria da. Irakasleentzat, tutoreentzat, eta familia askorentzat ere, erreferentziazko profesionala izan zen arlo horretan.

Hona bere lanaren ardatzak:

- Hezkuntza prebentiboa: ikasleen behaketa sistemikoen bidez, zaitasunak antzeman eta behar ziren eskuhartzeak planifikatzen zituen tutoreekin batera.
- Hezkuntza premia bereziak (HPB) zituzten ikasleak ikastolan integratzen hasi zirenean, ikasleen eta haien familien eta tutoreen inguruan interbentzioak eta laguntzak martxan jarri zituen.
- Tutoretza saioak: Haur Hezkuntzako nola OHKO Bigarren Etapako ikasle taldeekin lan egin zuen; egoera zailak, pertsonalak nahiz kolektiboak, bideratzeko. Tutoretza saioak egiteko protokoloak eta jarraipideak ere egin zituen irakasleak eta tutoreak laguntzearren.

Marije Urangak 1999ko uztailan utzi zuen Txingudi Ikastola, eta bertan egondako urteetan haurren ongizatea bermatu eta hori lortzeko hezkuntzaren konpromisoa eten gabe sustatu zuen.

## 1. Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren oinarriak:

Urte horietan Txingudi Ikastolan estilo edo egiteko molde bat garatzen joan zen, bere Hezkuntza Proiektua osatzen zen heinean.

Estilo horrek nortasuna handia eman zion Ikastolako hezkuntza komunitate osoari.

Faktore askoren ondorioa izan zen egiteko molde horren gauzatzea, hona hemen horietariko batzuk:

- Gizarteaaren eskaerari erantzutea
- Euskara eskola hizkuntza bihurtzea
- Euskal kultura eta herriko ohiturak talde kohesioarako tresna gisa erabiltea
- Hezkuntza komunitateko partideen atxikimendua eta implikazioa
- Hezkuntza Proiektua garatzeko autonomia
- Irakasleriaren antolaketa eta espezializazioa

## Gizarteaaren eskaerari erantzutea:

Ikastolako Hezkuntza Proiektuak planteatzen zituen ardatz nagusiek Irungo eta Hondarribiko gizartearen eskaerari erantzuten zioten.

Horrek ematen zien Proiektua garatzen ari ziren eragileei —guraso irakasle, langile, sustatzaile...— zilegitasun sentimendua, indarra eta seguritatea behar ziren erabakiak hartzeko eta aurrera eramateko.

## Euskara eskola hizkuntza bihurtzea:

Euskara bezalako hizkuntza gutxitua hizkuntza behikularra izateak eragin zuzena izan zuen Ikastolako Hezkuntza Proiektuan, eta ezaugarri bereziak eta propioak eman zizkion:



Ikasle askoren ama-hizkuntza gaztelera izanez, haurrei euskara ahalik eta azkarren irakatsi behar zitzaien. Hau da, sei urtetarako euskararen ahozko ezagupen aktiboa eman nahi zitzaien.

Euskara ikastearen helburuak hizkuntzen ikas-irakaskuntzari dimensio berria eman zion, proiektuen ardatz bihurtzeraino; eta, eraikitzentzen ari zen curriculumean eragin handia izan zuen:

Ikasleen taldekatze irizpideak finkatzerakoan, curriculumean euskal hizkuntza eta literaturaren lehentasuna mugatzerakoan, gainontzeko irakasgaien ordutegiaren banaketa egiteko orduan, ebaluaketa irizpideak adosterakoan...

Irakasgai guztiak (matematika, gizarte, natur zientziak, plastika...) hizkuntza lantzeko eta aberasteko ere erabiltzen ziren. Interdisziplinaritatea beharrezkotzat jotzen zen.

Hizkuntzaren irakaskuntza eta ikasleen euskararen ezaguera eta erabilera kezka nagusiak izan ziren eguneroako jardunean. Ardura horrek ekarri zuen Ikastolako hizkuntzen pedagogia egokitzea eta berritzea, garaiko teoria linguistikoena eta didaktikoen argitan.

1988an, KILOMETROAK festa antolatu zuen Txingudi Ikastolak. Berrian lortutako diruaren herena Ikastolako Hizkuntzen Proiektua osatze eta berritze lanak finantzatzeko erabili zen, Derioko Magisteritza Eskolako asesoritzarekin.

Haur Hezkuntzaren eta OHoren hizkuntz proiektua garatzen hasi zen. Irakasleriaren formakuntza izan zen lehen urratsa, ondoren programazioak egin eta unitate didaktikoak sortu ziren eta ikasgeletan esperientzia aurrera eraman.

Haur Hezkuntzan egiten ari zen esperientziak interes handia sortu zuen. Ikastolan ikastaroak eta mintegiak antolatu ziren, eta hainbat ikastetxe eta ikastoletan —Zarauzko La Salle, Hernaniko Langile Ikastola, Lasarteko Landaberri Ikastola— Txingudi Ikastolako proposamen didaktikoak martxan jarri ziren.

### **Euskal kultura eta herriko ohiturak talde kohesiorako tresna gisa erabiltzea:**

Hizkuntzarekin batera, euskal kultura eta ohituren ezagutza sustatzea zen helburu nagusienetarikoa.

Haur Hezkuntzako eta OHOKO ikasleekin lantzen ziren programaziotan: euskal kulturaren pertsonaiak, ospakizunak eta festak, aro eta data esanguratsuak, eta horiei loturiko kantak, bertsoak, dantzak, mozo-roak, eskeak...





Irakasleek eta ikasleek ez ezik, familiak ere parte hartzen zuten: aiapaturiko ohituretan, festetan eta ospakizunetan. Tresna hauekin partaidetzaren sentimendua bultzatzen zen eta kohesioa areagotzen. Irungo kaleetan Txingudi Ikastolako taldeak Santomasetan, Olentzerotan, Txoznetan, Santa Agedan, kirol ospakizunetan... ohikoak ziren euskal kultura eta ohiturarekiko atxikimenduaren lekuo gisa.

## **Hezkuntza komunitateko partaideen atxikimendua eta inplikazioa:**

